

IBARDINGO BENTAK

Egunero milaka bisitari merke erosi, jan-edan eta egun pasan

Urte osoan, eta batez ere udapartean, milaka eta milaka bisitari atzerritar biltzen dira Ibardingo Bentetan. «Negozioa egitera eta egun pasa» etortzen dira.

Izan ere, mugako saltoki hauetan bisitariak izugarrizko etekina ateratzen diote Espainia eta Frantziako fiskalitateek elkarren artean dituzten diferentziei. Espainian alkoholak eta tabakoak zerga edo inpuesto gutiago ordaintzen du Frantzian baino. Eta gauza bera gertatzen da BEZ

edo IVA-rekin. Espainian %16koa den bitartean,

Frantzian %20,6koa da. Horren guztiaren ondorioz, Ibardingo Merkatu Zentrua leku atsegina da turistentzat, salmentak, gastronomiak eta ingurumenak kilikagarri egiten baitu mendi kaxko honetara bisita egitea.

Zerga edo inpuesto gutiago ordaintzen denez, jendea erruz etortzen da «negozioa egitera»

ES 4-5



3 Cesáreo SOULE

Arizkungo eskultore honek bigarren saria lortu du Europa mailako lehiaketabatean. Bergerác herriari (Frantzia) egin zen lehiaketa horretan Almadia izeneko lana aurkeztu zuen baztandarrak.

28 Laxoa finala, abuztuaren lein

Arraiozen jokatuko da Baztan-Malerreka txapelketaren finala, Doneztebe A eta Baztango talde baten artean.





Zorionak

Gasherbrum II
espedizioari

 **SaveriaGroup**



MASTER KATEAREN GARANTIA
elektrogailuetan

- SUKALDE MOBLEAK
- ELEKTRIZIDADEA
- ANTENAK



AENOR

Kalitate zertifikatua

JAURENA

Elektrogailuak

Ricardo Baroja 12
Tfnoa: 948 63 12 17
BERA



Modelo /Modele
TEXAS patinado

DATUAK.....

❖ Bergerac-en (Frantzia) Europa guziko eskultoreen arteko lehiaketa batean bigarren postua eskuratu du berriki arizkundar honek.

❖ Lehiaketa hortan irabazle ofiziala Frantziakoa izan bazen ere, epaileek lehendabiziko saria –erreminta-kutxa dotorea– Cesareori eman zioten.

❖ Eskultura egiteko 15 ordu eman zituzten lehiakideek hiru egunetan zehar, eta horrela lan egitea arras gogorra dela dio.

❖ Harria lantzeko afizioa aitarengandik jaso du, honekin hasi baitzen hargin lanean. 29 urterekin hasi zen eskulturak egiten, eta gaur egun kanposantuko estelak eta armarriak egitea du ogibide.

TESTUA ETA ARGAZKIA:
ASIER GOGORTZA

☞ **Cesáreo Soulé** *Arizkungo eskultorea*

“Ez naiz sekulan eskultorei izena jartzearen aldekoa izan”

NOIZ JAKIN ZENUEN ESKULTURA LEHIAKETA HONETAN PARTE HAR- TUKO ZENUELA?

Gan den otsailaren azkenera deitu zidaten. Ni harat gan nintzen ardua haundiarekin, Espainia errepresentatzen nuelako. Saiatu nahi nuen bertze eskultoreen artean zerbaitegiten, eta behintzat ikusi dut euren ondoan egoten ahal naizela.

ZER GISAKO LEHIAKETA IZAN ZEN?

Lehenbizian maiztean egitekoa bazen ere azkenik ekainaren 17tik 20ra izan zen, ortziral goizean hasi eta igande eguerdiarte. Eskultore batzuk huts egin zuten baino bertze tokietarik arras onak ekarri zituzten. Hala ere, nik ez diet sekulan beldurrik izan eskultorerik hoberenei. Nik beti erraten dut: errekegiten dutena nik ez dut egiten ahal, baina nik egiten dudana eurek ere ez.

AITZINETIK BAZENEKIEN ESKULTURAREN GAIK URAREKIN LOTURA IZAN BEHAR ZUELA. ALMADIA HAU EGITEA ERE PENTSATUA ZENUEN LEHENAGOTIK?

Bai eta ez. Ez neukan gauza garbi, nik azken momentuan pentsatu nuen almadia egitea. Hor problemarik haundiena dimentsioekin nuen, ez nekien ttikia,

☛ *“15 ordu eman nituen eskultura egiteko, eta batzutan nahiko gaizki pasatu nuen, arras nekatua, batez ere gerritik. Belauniko eta ahal zen bezala egin nuen lana, baina merezi zuen».”*



Cesáreo Soulé, Bergerac-en bigarren saria eman zion almadiarekin.

haundia, edo nolakoa egin beharko zen. Harria ez zen txarra, naiz eta erremintenzako gogor xamarra izan.

DENETARA 15 ORDU EMAN ZENITUEN ES- KULTURA EGITEKO, EZTA?

Bai. Horregatik, momentu batzutan nahiko gaizki pasatu nuen, arras nekatua, batez ere gerritik. Belauniko eta ahal zen bezala egin nuen la-

na, baina merezi izan zuen. Nik igande goizean oraino ez nuen garbi bukatuko nuela, eta oren bat falta zelarik ere ez nintzen segur.

LEHIAKETATIK KANPORA ESTILO DIFERENTE- AK LANTZEN DITUZU ES- KULTURETAN. ZEREN ARABERA?

Harriaren arabera egin duteskultura. Gero soberan gelditzen diren puxkekin ere saiatzen naiz zerbait egiten. Egia erran, nere eskultorek ez dute erranahi bereririk, eta izenik ere ez diet jartzen. Ez naiz horren aldekoa.

BAZTANGO HARRIARE- KIN ARITZEN ZARA LA- NEAN?

Gutti, nere lanerako ez baita sobera ona, idor xamarra. Orain Tafalla aldekoa edo Leridakoa erabiltzen dut.

LANA ENKARGUZ ERE EGITEN DUZU?

Bai. Kanposantuko estelak, hilarriak, etxe-tako armarriak... Asti pixka bat bilatzen dudanean, gauzez batez ere, eskulturan ordu mordo-xka bat sartzen dut. Lanean gustora aritze-ko ez da gaua bezalakorik. Kontzentratze aerre-xagoa izaten da.



Udako egunetan, sobera eguzkitsuak ez direnetan batez ere, milaka eta milaka frantses turista goitzen da Ibardingo bentetarat egunpasa. Erosi, tabakoa eta alkohola erosten dute gehienbat, bainan aunitzek bertan bazkaltzen dute, eta paella eta Espainia aldean tipikoak diren jakiak nahi izaten dituzte.

Alkohola eta tabakoa, frantsesentzat amua

Alkohola eta tabakoaren prezio merkeak Frantzia guziko erosleak erakartzen ditu urte guzian zehar Ibardingo bentetarat. Bi droga bigun horiei esker egiten dute salmenten %90a. Xuxenki, Whiskya eta Ricard alkoholdun edariak saltzen dira gehienbat, Frantzia aldeko aperitifetan tipikoak dira eta. Frantziako edozein ostatu edo dendatan 110 libera -2.750 ptabaliu duen Ricard botila bat Ibardinen 63 libera -1.575 ptagostatzen da. Hortxe dago kokxa, eta Ibardineko sekreturik haundiena.

Bertzalde, souvenirrak, arropak, jakiak... denetarik saltzen dute 25 kantina hoietan. Berako eta inguruko herrietako gazte aunitzek harrapatzen du Ibardinen bere lehendabiziko lanpostua.

TESTUA: ASIER GOGORTZA

duela 67 urte egin zen Ibardingo gainean lehendabiziko kantina, Gorria, bainan lehenagotik ere egurrezko etxola tiki bat zuten toki berean, eta hainbat gauza saltzen zuten. Gerra ondotik bertze beratar batzuek bide beretik segitu zuten negozio familiarra antolatzen: Benta Berri, Izarra, Harri Benta... Orain dela 12 urte finkatu zen gaur egun dagoen kantinakopurua, 25 hain xuxen. Hemendik aitzinera, ordea, ezinezkoa da Ibardinen benta gehiago egitea, eraikigarria den lurra betebetea baitagodagonekoz.

Kantina batzuen eta bertzeen artean desberdintasun nabarmenak daude: batzuetan, xumeenetan, etxeko jendearekin moldatzen dira lanerako, baina gehienetan langile gazteak hartzen dituz-

te udako denboraldian. Benta haundietan 25-30 langile ere juntatzen dira udan. Gisa honetan, ikasle aunitzek diru frexkoa ateratzeko modua izaten du hilabete batez, hilabete terdiz edo bi hilabetez lan eginez.

Benta guzietan ez diete berdin ordaintzen, bainan gutti goiti beheiti, uztaila eta abuztua lan eginez 300.000 pezeta irabazten ahal du langile batek. Hori bai, ia egun librerik gabe eta goizetik arratsera laneginez. Ezin da xuxen erran, bainan udako sasoiaren denetara 500 langile inguru enplegatzen da Ibardingo bentetan.

Bertzelako langileak ere badira Ibardinen, urte gu-



Aparkalekuen arazoari aurre egiteko sahesbide berria

Udako egun normal batean 1.000 turistatik goiti goitzen da Ibardingo kaxkora. Gehienak auto partikularretan etortzen dira, eta tarteka autobusetan ere bai. Gaur egun trafikoa zuzentzen hiru beratar gazte aritzen dira uda guzian, egia erran, baina arras lan zaila dute, ez baitago aparkaleku nahikorik etortzen diren auto guzientako.

Masifikazio honek arazo bat sortu du aspaldiko urteetan, eta bai bentetako nagusiek bai Berako Udalak aterabide bat emateko beharra somatu zuten. Joan den urteko udaberrian, kantinen inguruan itzulia egiten duen sahesbide bat egiteko proiektua sinatu zuten Nafarroako Gobernuo Herrilan kontseilariak eta orduan Berako alkate zen Manuel Iriartek. Errepide berriak 8 metroko zabalera edukiko du, 3na metroko bi karril eta metro banako bi bazterbide. Proiektuak 100 milioi pezetako -4.000.000 libera- aurrekontua zuen hasieran, nahiz eta hondarerrako 145 milioi izanen diren -5.800.000 libera-. Diruaren %69a Nafarroako Gobernuak jarriko du, eta bertze %31 Berako Udalak. Hala ere, gero Ibardingo bentetako nagusiek Udalarari diru hori ordaindu behar diote zerga baten bidez.

Sahesbide horri esker orain izaten den trafikoa ikaragarria arinduko ote den esperantza dute bentetako nagusiek. Lanak aski aitzinduak daude, eta 2.000. urteko uda lasaiegoa izanen da alde horretatik.



Bidearen bi aldeetan daude komertzioak, baina aski desberdinak dira euren artean, alde batean beratarren kantina haundiak, eta bertzean berriz iparraldeko jendeak jarritako postu tikiagoak.



zian aritzen direnak, alegia. Hauek soldata eta baldintza hobexegoak izaten dituzte normalki. Azkenik, asteburuetan bakarrik lan egiteko kontratuak eregin ohi dituzte bentetako nagusiek, lana dextente goitzen baita larunbat eta igandetan.

Dena den, gazte gehienek ez dute Ibardinen denbora luzez segitu nahi izaten. Nahia go dute herrian bertze lanpostu baten bat bilatu, fabriketan edo zerbitzu desberdinetan.

Sekretua: alkohola eta tabakoaren prezioa

Arestian erran dugun bezala, alkohola eta tabakoaren usainean etortzen dira frantsesak Ibardinera. Litro bateko Ricard botila batean ia 1.200 pezetako -47 libera- diferentzia aurkitzen dute erosleek. Marlboro pakete batean, berriz, hiru bat libera-75 pezeta- alde.

Baina zein da prezio diferentzia honen arrazoia? Estatuek alkohola eta tabakoaren gainean kobratzen duten zerga berezian dago kokka. Izan ere, Estatu Espainiarrak saltzen den Whisky botil bakoitzarengatik 456 pezeta biltzen ditu, eta Frantsesak, berriz, hori baino dextente gehia-

go. Gainera, BEZ edo IVA delako zergarekin ere gauza bera gertatzen da. Espainian %16koa den bitartean, Frantzia %20,6koa da.

Hegoaldean mendia eta Iparraldean itsasoa

Dena den, erosketak egin bidenabar egunpasa egiteko ere probexten dute frantses turistak. Paisaiak erakartzen ditu, udan bista ederrak izaten baitira kaxkotik, Hegoaldean mendia eta Iparraldean itsasoa. Hala ere, eta hori hango langileek ongi dakite, egun eguzkitsuak izaten dira lasaienak, turistek hondartza aukeratzen baitute egunpasa joateko. Egun grisetan, ordea, Ibardinek gainezka egiten du. Udako egun arrunt batean milaka eta milaka turista pasatzen da bertatik.

Bistan denez, horrenbertze erosle ibiltzen den toki bat diru iturri handia da herri-

arentzat, edo herritar batzuentzat bai bederen. Hala ere, Ibardinen ibiltzen diren turistak hoietako gehienek gero ez dute Bera ezagutu ere egiten. Aniztan aipatzen den bezala, Berako komertzio eta hostalaritzarentzat bulkaldi polita izanen litzateke turista hoiak herrira bideratzea Ibardingo erosketak egin ondotik. ■



Elizalde bentatik beheitego hasiko da sahesbidea.

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 7.100 ALE

Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

Herriko Etxeko Plaza, 1

E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 11 88

Faxa: (+34) 948 63 12 91

Internet:

<http://www.jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa>

e-mail:

ttapi-ttapa@topagunea.jalgi.com

abea: TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irijoien.

Zuzendaria: Aitor Arozeta.

Publizitatea: Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arozeta,

Asier Gogortza. **Berriemaileak:**

Joseba Azpiroz, Esteban Arozeta,

Juana Mari Saizar, Iban Isasi,

Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena,

Maione Otxandorena, Alba Fernandez,

Lorena Galarregi, Pello Mendiburu,

Franck Dolosor, Margari Etxenike,

Koro Irazoki, Mari Etxeberri,

Martine Goieke, Frederick Berruet,

Elixabet Kurria, Garbiñe Maiz,

Oskar Xoperena, Pello Apezetxea,

Aitor Arozeta, Asier Gogortza.

Kolaboratzaileak: EHNE Nafarroa,

Mikel Bezunartea, Belarra...

primategia: Gertu. **Erakunde**

aguntzaileak: Bera, Leitza, Goiuetza,

Arano, Areso, Baztan, Urzubi eta Sarako udalak,

Bortziritako Euskara Mankomunitatea,

Galierrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Arripidetzariari:

Ego Euskal Herria ... 2.000 Pta.

Ar Euskal Herria ... 140 Libera

Europa ... 3.500 Pta.

Amerika ... 15.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Oporretan joateko aukera desberdinak

Xacobeo urtea dela kontutan hartuta, Galiziara bidaia proposatuko nuke



Maribel ARTAZKOZ
Halcón Viajes. Elizondo.

Nik Galiziara bidaia proposatuko nuke udan honetarako, Xacobeo urtea dela kontutan hartuta. Zortzietan oporraldia da, ateraldiak eta bazkariak barne. Bidaia luxuzko autobusean egiten da, Iruñeatik edo Donostiatik aterita, eta Galizian pentsio osoa sartzen da bi izarreretako hotelean. Han egunero ateraldiak egiten dira, Santiagoko katedrala ikustera, Baiona, Laguardia, Vigo ezagutzera... Portugaleko iparraldera ere bisita egiten da bosgarren egunean: han mariskada ematen dute bazkaltzeko: almejak, ganbak plantxan, nekora bat, bieira bat, langostinoak...

Gero Rias Baixasera joateko aukera dago zarpigarren egunean, eta han 'queimada' bat egiten diote bisitariari, tradizioa den bezala. 8 eguneko opor hauek 53.000 pta gostatzen dira abuztuan, eta irailan 39.500era jausten dira. Baina bertze aukera merkeagoa dago Galiziara joateko: bidaia eta pentsio osoa ordainduta, eta astetartean zuk nahi duzuna egiteko aukera.

Gero, bertze aukera bezala, Mallorcara bidaia dago, hegazkinez ibiltzeko txirrinda dutentzat. Iruñeatik Mallorcara bidaia eta han hotelean pentsio osoa 44.900 pezetatik aurrera gostatzen da abuztuan.

Abuztuan ez da oferta bakar bat ere izaten, irailean berriz bai



M^o Eugenia SOBRINO
Bidai agentzia. Elizondo

Aurten Xacobeo urtea denez, eskaera handia dago Galiziara joateko.

Egon beti badago Galiziara joaten den jende aunitz, baina orain gehiago. Gukesaintzen dugu autobus-zirkuituaren aukera, zure kasa joatea baino merkeago ateratzen delako. 6tik 10 egunetako zirkuitua izan daiteke, egunero ateraldiak eginez: egun batez Santiagora, La Coruña, bertze batez, eta baita Portugalera ere. Normalki Rias Baixas-en pentsio osoa hartzen da eta hortik mugitu. Prezioei dagokionez 50.000 pezetatik goiti lortzen ahal da horrelako egonaldi bat. Hori abuztuan, irailean dextente jausten baita.

Bertze aukera bat, neri aunitz gusatzatzen zaizkidanak, Costa Brava eta Andaluzia izan daitezke. Eta batez ere, balearetan, Menorca maite dut. Mallorcan baino guttiago somatzen da turisten masifikazioa eta itsasoko kalak puska politagoak dira. Bidaia hegazkinez egiten nuke, itsasontzian bezala gostatzen baita. Sol ofertarekin, adibidez, 8 egun edo guttiago egon zaitezke, eta kotxe bat alokatuta zure gisara ibiltzea da hoherena.

Penintsulatik kanpo Europa, Escandinavia... denetatik dago, baina sasoi honetan ez dago oferta bakar bat ere. Irailan izaten dira.

Ez diat gomendatzen bidai prestaturik egitea, nahiko gaixatuak egoten baitituk



Joseba 'SUSPERREGI'
Maldaerreako. Lesaka

Atzerrira joateko nik ez diat gomendatzen udan joatea, abuztuan bidaiek

prezio bikoitza ditek eta. Bidaia-tzeko modurik egokiena, berriz, lehenagotik joan-etorria erostea izaten duk normalean. Ahal bada lehendabiziko hiru-lau egunak hotel batean hartu, eta gero hik heronek aukeratu zeregin nahi duken. Bertzela liburu-gida on xamar bat eraman eta hire gustora egokitu bidaia, bainan ez bidai prestaturik egin, hoiek nahiko gaixatuak egoten ditukelako. Gainera, dena egina ematen ditek bidai hoiek nahiko konbentzionalak eta garestiak izaten dituk, eta baliteke gustora ez itzultzea. Ze herrialde aukeratu? Hor badi-tuk betikoak dituk destinoak: Tunisia, Egipto eta Turkia adibidez. Hoiek nahiko merke ateratzen dituk, lo egitea ez baituk Europan bezain garestia.

Jendeak joan nahi izaten dik non-baitera, baina ez zekik nora eta zert egin. Inora joan baino lehen ongi informatzea duk nahitaezkoa. Bidaian zehar diru guttiago gusatzeko eta baita bidaia hobia egiteko. Jendeak jakin behar dik zer ikusi nahi dikan eta gero erabaki, ez kaso gehiegirik egin eskaintzen dituzten gauzei.

Prezioak: Mexikora, adibidez, Hondarribatik aterita, 100.000 pta gostatzen duk joan-etorria.



ttipi-ttapa fundazioak Europako Batzordearen dirulaguntza jaso du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Astelehenetik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara

• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., @ 948133328*133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☞ Langile Autonomoak
- ☞ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☞ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☞ Diru-laguntza ezberdinak
- ☞ Kontabilitateak
- ☞ IVA eta IRPF
- ☞ Errenta aitopenak
- ☞ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☞ Bideragarritasun planak

ARGAZKIAK

AYLA

BERA
Tfnoa.: 948 63 00 75

- ▶ %10 merkeago argazki makinetan izan ezik

FOTO GOIKO

BERA
Tfnoa.: 948 63 05 15

- ▶ %10 merkeago karreetan, errebelatzeetan...

ARROPA DENDAK

Juan. J. PIKABEA

DONEZTEBE
Tfnoa.: 948 45 16 70

- ▶ %10 galtza-marka batzuetan ez



DONEZTEBE
Tfnoa.: 948 45 16 49

- ▶ %10 (2.500etik goiti)

ARROPA DENDA



ELIZONDO
Tfnoa.: 948 58 03 12

- ▶ %10 (5.000 ptatik aurrera)



TTIPI TXARTELArekin beti irabazten da

Zenbat eta gehiago erabili, orduan eta gehiago irabaziko duzu.

Deskontuak, zozketak, opariak...

ESKATU ZUREA

948 63 11 88

Zalaingo sariaren irabazlea:

Montse BENGOTXEA (Arraioz)

Abuztuaren 28an Lesakako Frontoian eginen den **Oskorraren kontzerturako 10 sarrera** zozketatuko dira TTIPI TXARTELA dutenen artean. Zozketan parte hartzeko, deitu abuztuaren 25a baino lehen 948 63 11 88ra.

oskorri & the pub ibiltaria

10 sarrera



ARROPA DENDAK



LESAKA
Tfnoa.: 948 63 79 51

- ▶ %10eko deskontua

ELEKTROGAILUAK

ALZURI
Elektrogailuak

ARANTZA
Tfnoa.: 948 62 75 31
Mug.: 608 778 894

- ▶ %5 elektrogailuetan

ZAPATADENDAK



DONEZTEBE
Tfnoa.: 948 45 02 89

- ▶ %5 deskontuak

GOÑI

ELIZONDO
Tfnoa.: 948 58 01 62

- ▶ %10 (2.000 ptatik goiti)



NEKAZAL
FORMAKUNTZA

Ikastaroetan barneratutakoa baliagarria da eguneroko lanean erabiltzeko

ITGak eskualdeko nekazarien formakuntzari begira, Doneztebeko Juansenea etxean antolatutako ikastaroetan jende aunitz ibili dela ikusi genuen aitzineko alean. Halere, kontuan hartuz gure eskualdean nekazari eta abeltzainen kopurua haundia dela, bada ikastaro hauek ezagutzen ez dituen jende aunitz. Denbora falta, bertze mila gauza egin beharra, informazio eza edo, bertzerik gabe, etxeko lanez gain bertzelakoetan has-teko gogorik ez izatea dira horren arrazoi

nagusiak. Eskualdean bertan badira, ordea, ITGko ikastaro batean parte hartu eta gus-toa hartu diotenak. Horien arten daude Ma-riado Iturralde, esne-behiak hazten dituen donamariarra; Patziku Irisarri, ahateak haz-ten dituen etxalartarra eta Alejandro Ibarra eta Eva Martin, Elgorriagako zalditegiko ar-duradunak. Beraien esperientziaren berri kontatu digute eta, orokorrean, ikastaroetan ikasitakoa arras baliagarria izan omen zaie beraien lanbideetarako.



IS Mariado ITURRALDE Donamariakoa

«Zerbait ikasi bidenabarkoan inguruko jendea ezagutzen duzu»

bak eta esneki goxoak egiteko ikas-taroak ere egin dituzu. Hainbertze aditzen den dibertsifikazioaren bi-detik jo nahi duzulakoz edo?

■ Bai, noski. Aziendez gain, bertze produktu bat baduzu eskaintze-ko, diru sarrera berri bat lortzen du-zu. Dibertsifikazioa ongi dago, bai-na kontua da hori dena egiteak den-bora eskatzen duela, ordu aunitz, eta ez da hain errega. Momentuan ez du-gu horren beharrik, baina ikasitakoa ikasia dago.

✓ *Azkenik, Euroaren eraginari buruzko ikastaroa ere egin duzu. Zein ondorio izanen ditu Europa-ko monetak gure baserrietan?*

■ Karta jaso nuenean ez nuen ideiarik ere zer zen Euroa. Gero ikus-ten duzu baserrian ondorioak izanen dituela. Orain behi-esne litroa 50 pe-zeta ordaintzen badigute, Euroare-kin ez dakit zenbat izanen den, na-hasketa haundia izanen da. Prezio horiek denak ikastea ongi dago.

✓ *Orokorrean, ikastaro hauetaz zer balorazio egiten duzu?*

■ Bertze moduan ezagutuko ez nukeen jendea ezagutzen duzu eta gainera, ikasi ere egiten duzu. Gero, bakoitzak ikusten du ikasi duen ho-ri bere esplotazionean baduen apli-katzerik. Etorkizunean ere, ikasta-roetan parte hartzeko prest nago.

✓ *Ikastaro aunitz egina zara, gehien bat kontabilidadekoak...*

■ Bai, kontabilitatea ordenagai-luz egitea ikasi nuen eta abantaila haundia da. Dena buruan ezin duzu izan, baina ordenagailura joan, bo-toi bat zanpatu eta hor agertzen dira behar dituzun datu guztiak, erraxa da.

✓ *Mermelada, barazki kontser-*



✚ Eva MARTIN eta Alejandro IBARRA *Elgorriagak*

«Turismoa eta zaldiekin zerikusirik duen guzia ikasi dugu urteotan»

✓ **Zalditegia eta turismoa uztartzeko ikastaroak egin dituzue zuek...**

■ Orain dela hiru urte hasi ginen ikastaroan. Hasieran teknika eta honelakoak ikasi genituen –Alejandrok ferratze ikastaroa adibidez–, baina gero, kurtsoka-kurtsoka, sakontzen joan ginen. Azken azterketa egin genuen Frantzian eta zaldi turismoan profesional titulua ateratu genuen.

✓ **Praktika eta teoria, biak egin beharko zenuzuten azterketa horretan...**

■ Lehenbiziko sei gailoak ateratu behar dira eta hortan sartzen da praktika gehiena... Gero, zaldi turismoa ateratzeko azterketa berezietan ez da hainbertze praktika, teoria da gehien bat: topografia, uhalgintza...

✓ **Beraz, ikastaroetan ez da zaldiz ibiltzen ikasten bakarrik, gauza aunitz dira...**

■ Bai, zaldiekin eta turismoarekin zerikusia duen dena ikasten duzu: taldeak nola eraman, sokorrismoa, segurtasuna, gauzak nola konpondu, ez galtzeko mapak nola leitu...

✓ **Aitzinera begira zein asmo dituzue zalditegian?**

■ Gure asmoa traba-egitea da, jendeak inguru hau ezagutu dezala, eta ahal den neurrian, zaldietatik bizi. Horretarako turistak ekarri beharko ditugu, nekazal-turismoa egiten duten etxeekin nola baiteko harremana lortu, ez dakit...

✓ **Zaldian ibiltzeko leku egokiak badira inguru honetan, ez da?**

■ Inguru hori zoragarria da, suertehori badugu, baina jendea oraindik ez da animatzen hemen zaldian ibiltzera. Eguraldia izanen da traba bakarra, baina uda eta udazkenean ibilaldi aski ederrak egin daitezke.

✚ Patziku IRISARRI *Etxalarkoa*

«Baserriak zenbat diru irabazten duen xuxen ikusteko baliagarria da kontabilitate ikastaroa»

✓ **Gehien bat kontabilitate ikastaroak egin dituk. Baserrian baliagarriak izan zaizkik gero?**

■ Gaur egun, eskolatik atera eta negozio batean sartzen bahaiz ez duk ideia-rik ere. Inportantea duk hurre lana ongi egitea, baina kontuak ere ongi eraman behar dituk. Hasieran kontabilitate eskuz egiteko ikastaroa egin nian eta azkeneko biak, kontabilitate informatizatua: kontuak serio eta xuxen-xuxen eramatea. Auniztan baserri-tarrak ez daki ongi zenbat irabazi duen eta kontabilitatearen bidez hori kontrolatzen da: *Hau irabazi dut, zor diat hori...*

✓ **Hertzebeteak etxean egiteko ikastaroa ere egin huen...**

■ Bai, nik ahateak hazten ditut eta horren inguruan zerbait ikasi nahi nuen.

Nire kasuan, hori aplikatzeko, etxean ahate bat hil eta potetan sartu, edo horrelako zerbait izanzen zen. Komertzializazioari begira ez, ber-

tze baldintza batzuk eskatzen baitituzte.

✓ **Azienden gorotza gestionatzeko ikastaroan ere parte hartu huen?**

■ Horretan ez nintzen gustora gelditu. Lau orduz, gaur egun dauden teknikak azaldu zizkiguten, baina horiek guztiak badakizkigu. Soluzio berriak espero nituen.

✓ **Aitzinera begira, bertze ikastaroetan parte hartzeko ideia duk?**

■ Bai, azaroan kontabilitate ikastaro berri bat egingen da, maila haundixiangoarekin eta parte hartzeko asmoa dut. Bakoi-tzak gure etxean egindako kontabilitate kontuan hartuz gure zalantzak agertuko dizkiogu irakasleari, kontabilitate programan gero eta gehiago sartzeko.



ultur

Hainbat ekitaldi udako kultur programazioan

Erakusketak, musika, antzerkia, herri kirola...



TTIPI-TTAPA

Azkeneko bizpahiru urteetan bezala, uda honetan hainbat kultur eta kirol ekitaldi izanen dira gure herrietan, Cultur kanpainaren barnean.

Hasteko, uztailaren 23tik bi erakusketa zabalik daude Bera eta Elizondoko Kultur Etxeetan. Julio Caro Baroja Kultur Etxean «*Etxe Nafarra*» erakusketa zabalik egonen da abuztuaren 25a bitarte, goizeko 11,30etatik 1,30etara eta arratsaldeko 6,30etatik 9,30etara. Ordutegiberearekin, baina abuztu osoan zabalik egonen da Arizkunenean Jesus Basiano margolariaren «*Nafarroako paisajeak ikuskera*».

Aste honetan dantza, musika eta herri kirolak izan dira Leizta, Bertiz eta Lesakan, baina hemendik aitzinera ere izanen da zer ikusi

eta zer aditu gure bazterretan. Ortzegun honetan, uztailak 29, arratseko 9etan Erramun Martikorenaren kantaldia izanen da Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean.

ARTISAUAK ELIZONDON, MUSIKA KLASIKOA BERTIZKO JAURERRIAN

Larunbatean, uztailak 31, Elizondotik mugitu gabe, ekitaldi ikusgarria izanen da Merkatu Plazan, arratsaldeko 5,30etan. Gure Artisau Kuttunak erakusketa izanen da, eta hau girotzen, Duguna fanfarrea ariko da. Egun berean, baina arratseko 10,30etan, Ortzadar Euskal Folklore Taldearen dantza emanaldia izanen da Leitzako pilotalekuan. Bertizko Jaurerrian, berriz, eguerdiko 12,30etan eta arratsaldeko 6etan, musika emanaldia eskainiko du Sarasate laukote-

ak.

Abuztura pasatuz, igandean, abuztuak 1, Euskal Dantzarien Biltzerra dantza taldearen emanaldia izanen da Urdazubin, eguerdiko 12,30etan (plazan edo pilotalekuan, eguraldiaren arabera).

Abuztuaren 7an, Elizondoko Merkatu Plazan, berriz ere eskulanen erakusketa izanen da arratsaldeko 5,30etatik aitzin. Arratseko 8,30etan herri kirola izanen da. Abuztuaren 8an, herri kirol saioa Doneztebeko plazan izanen da, eguerdiko 12,30etan. Abuztuaren 12an, arratseko 9etan, Mikel Markez kantariaren emanaldia izanen da Elizondoko Arizkunenean. Abuztuaren 14an, Bertizko Jaurerrian, Sinfonietta Academica Orkestak bi emanaldi eskainiko ditu, eguerdiko 12,30etan eta arratsaldeko 6etan. Abuz-

tuaren 15ean, Lesakan, Oberena dantza taldearen emanaldia izanen da eguerdiko letan.

Abuztuaren 21ean Elizondon izanen dira bertze behingoz artisauak, oraingoan Ardanbera fanfarrearen laguntzaz. Abuztuaren 22ko eguerdian, herri kirol saioa izanen da Urdazubiko plazan. Abuztuaren 26an, Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean, Joxan Goikoetxea eta J. Mari Beltran musikariaren «*Beti ttun-ttun*» emanaldia aditzeko modua izanen da arratseko 9etan. Abuztuaren 28an, Bertizko Jaurerrian Boskote Klasikoaren musika emanaldia izanen da eguerdi eta arratsaldean. Akitzeko, abuztuaren 29an, eguerdiko 12,30etan, Berako Gure Txokoa dantza taldeak bere saioa eskainiko du Doneztebeko plazan.

Hiru larunbatez, **Gure Artisau Kuttunen** lanak ikusteko modua izanen da Elizondoko Merkatu Plazan, musikaz lagundua.

Artxibokoa



PAGOLA

TXISTORRAK BADU BEREZKO IZENA

948 630 054
Altzateko plaza, 2
BERA

ROMANO PINTURAK

Barnealdeko dekorazioa, pintura, pape-
ra, moketa eta sintasola.

© 948 63 11 37 / 649 84 01 49 • BERA



ZALAIN
JATETXEA

EGUNEKO MENJUA ETA KARTA

Zalain Auzoa
© 948631106
BERA

Boda eta banketeak ematen dira

Mendiko pistak xuxen erabiltzeko ordenantza onartu du Udalak

Pista aunitzetan motordun ibilgailuekin ibiltzea debekatu dute

ASIER GOGORTZA

Aspaldiko asmo bat bete du Berako Herriko Etxeak egunotan: mendiko bideen erabilera arautzea. Izan ere, azken boladan 4x4 autoak eta motorrak aunitz ugaritu dira inguruko mendietan, eta gainera talde haunditan ibiltzen dira maiz. Hori izan da pista batzuk dauden egoera penagarriarengotaren arrazoia.

Ordenantza honetan erraten denez, mendiko bideak beratar guzión ondarearen zati bat dira, bizilagunen arteko komunikazioa eta kanpoko bisitarien ibilerak errazteko behar-beharrezkoak dira-eta. Horregatik, arrot garrantzitsua da pista hoiek egoera onean edukitzea.

Beraz, bi motatako mendi-bideak izanen dira hemendik aitzinera: bi metro edo gehiagoko zabalera dutenak edo neurri horretara ailegatzeko ez diren bide meharak. Lehendabizikoaren barrenean auzo eta baserrietara joaten diren bideak sartuko lirarteke, baita bigarren mailako pistak eta egurra ateratzeko bideak ere. Bide hauek zaintzeko behar diren neurriak hartuko direla adierazten du ordenantza berriak.

Bertzalde, debekatu egiten da pistetatik kanpora motordun ibilgailuekin ibiltzea, baita bi metrotik beheitiko pistetan barna ere. Halere, baserrietarak, arbolak ateratzen aritzen diren langileak edota bertze kasu berexitan salbuespenak eginen dira. Josu Goia alkateak adierazi duenez, «*lasai egoten ahal dirabide hoiek erabiltzen dituzten herritarrek, eskaera aurkeztu ezker baimen bereziak emanen baitira orain arte bezala segitzeko*». Gisa honetako baimen berezia alkateari berari eskatu behar ko zaio.

Larungo pista

Aipagarria da Landa-gaitatik Larun kaxkora doaien bide zatian ezin go dela baimenik gabeko ibilgailurik ibili, bendetako langileak eta baimena jasotzen duten he-



Okalarre mendiko aterpea moldatzen ari dira berriz ere

Uztailan zehar Kataluniatik etorritako 'boy scout' talde bat aritu zen teilatua moldatzen eta zaborra ateratzen. Duela ez urte aunitz berri zuten atepa hau, ohatzeak jarri, ura ekarri eta txukun-txukun paratu zuten, baina denbora tarte ttikian arrontean hondatu da berriz ere. Ibarinetik sobera hurbil dago, nonbait, eta maiz hurbiltzen dira batere errespetorik gabeko turistak. Azken aldian jarritako egurrezko plaka teilatua ere bakarren batek eraman zuen etxera. Jakitera zertarako!

rritarrek salbu, noski.

Guzti honetaz gain, pistetan barna 15 km/ordu baino mantsoago ibili behar ko da hemendik aitzinera. Orain arte aipatutako arauak haus-

ten dituen edozein pertsonari isuna jartzea erabaki du Herriko Etxeak. Dena den zigorra ez da 50.000 pezeta baino gehiagokoa izanen, legeak hala agintzen baitu.



Ongietorria Gasherbrum II espedizioari

Joan den asteazken ilunabarrean ailegatu ziren Londrestik Bilbora bortz mendizaleak. Han Beratik autobusean joandako lagun eta senideak zituzten zain, eta lehendabiziko harrera egin ondotik denak elkarrekin abiatu ziren herrira. Hemen, Agerra Mendi Elkartean atarian, ongietorria egin zieten hainbat herritarrek, aureskua dantzatu eta loreak oparituz. Luntz ttiki bat dastatzen zuten bitartean agurtu zituzten lagun eta ezagun guziak.

flash

Pettiren diskoa

Bakarlarik beratarak irailerako ateriko du bere lehendabiziko diskoa, "Amets bat" izenekoa. Gaztelupeko Hotsak zigiluaren eskutik argitaratuko du, nahiz eta grabaketa guzia Berako aduanan egindako. Berako bertze zenbait musikarien kolaborazioa izan du Pettik, eta Maiekek egin ditu soinu moldaketak.

Futbito

txapelketa

Uztailaren 31n jokatuko da peñen arteko futbito txapelketaren finala, arratseko 8tan.

Zinema aire librean

Abuztuaren 19an eta 26an zine emanaldi bana eginen da. Haurren arteko "Rudy txerria" filmea eskainiko da abuztuaren 19an, eta helduentzako, berri, "Errebelde baten egunkaria", 26an. Bi pelikulak arratseko 10etan izanen dira, Toki Ona kiroldegi aitzinekaldean.

Ortziraletan, 10etan
Mus Txapelketak

**ERREKALDE
ostatua**

Tfnoa: 948630259 - BERA

ALZURI

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 948 630 370 • BERA

948 631462
Aitzate I • BERA

Xirgil
Luzen Oyarza

LESACA

Kirola ezagutu eta modu egokian egiteko eskola antolatu du Beti Gaztek abuztuan

Fisioterapeutak eta Soin Hezkuntzan arituak izanen dira irakasle

AITOR AROZENA

Kirola osasunarekin lotu ohi dugu, baina beti ez omen da horrela. Auniztan, ttikitatik ikasten diren ohitura eta postura okerrekin ondorio txarrak eta lesio larriak sortzen ahal dizkiote kirolariei. Arazo honen berri izanda, abuztuan, Beti Gazte elkarteak, Lesakako Udalaren laguntzaz, kirol ikastaro batzuk antolatuko ditu, sei urtetik hamalau urte bitarteko inguruko haurrentzat. Kirol Eskola honen ordutegia, astearte honetan Beti Gazteren egoitzan egindako bileran zehaztu zen, baina klaseak abuztu osoan, astelehenetik ortziralerara izanen dira. Irakasleei dagokienez, fisioterapeutak eta Soin Hezkuntzan diplomatuak eta lizentziatuak diren herriko gazteak izanen dira.

KIROLA EGINEZ NORBERE GORPUTZA EZAGUTU

Kirol Eskolak helburu aunitz izanen ditu. Alde batetik, iharduera fisikoa egiteko ohitura sortu nahi da, kirol ezberdinak ezagutu eta praktikatu. «Kirola eta ariketak egitea denen esku egon behar du –diote irakasleek– eta ez gorpuzkera



Kontua ez da kirola egitea bakarrik, kirola modu egoki eta osasuntsu batean egitea baizik.

Argazkia: Aitor

jakin bat duenarentzat edo kirolean trebea denarentzat bakarrik». Bertetik, kirola egiteko arakoa postura egoki eta osasuntsu bat lortu nahi da, lesioak izateko aukera murriztuz. Irakasle lana beteko dutenen erranetan, «*batzuetan, beroketa eta lasaitasunera itzultzeko egiten diren ariketei –luzapenak...– ez zaie duten garrantzia ematen, eta horiek ariketa fisikoko saio baten barnean hagitzati garrantzitsua dira osasunari begira».* Beraz, kirola eginez, bizitzaren kalidadea hobetu nahi da, gorpuzka eguneroko egoerei mol-

datzeko prestatuz. Azken finean, kirolaren bidez norberaren gorputza ezagutzea da helburu nagusia.

OHIKO KIROLAK ETA JOKU TRADIZIONALAK

Hori guziaz lortzeko, alde batetik, ohiko kirolak egiten dituzte, bertzeak bertze futbola, saskibaloia, boleibola, badmintona, hockekeya, pilota, tenisa, txirrindularitza, mendi ekitaldiak... Hauekin batera, joku tradizionalak eta egokituak ere ikasiko dituzte. Guzi honekin, heziketa fisikoa eta posturen heziketa orokorra ere landuko dute.

Oraindik izena emateko epea zabalik dago eta horretarako Beti Gazte elkartearen egoitzara joan behar da edo 948 627 558 telefonora deitu.

flash

Erretiratuena bisita Andra Mari Zahar Etxera

Ortzegun honetan, uztailak 29, arratsaldeko 4etan, bisita egingen diete San Fermin erretiratuena elkarteko kideek Andra Mari Zahar Etxean daudenei. Bertakoekin denborapasan eta solasean egon nahi duten bazkideak gonbidatuak daude ekitaldi honetara. Bisitan txokolatea pasta eta gozokekin jan ahal izanen dute. Bertzalde, San Fermin elkartetik jakinarazi dutenez, bidai eta otorduetarako txartelak Arretxea dendan izanen dira salgai hemendik aitzin.

Futbola solaspide izan dugu asteotan herrian

Futbola solaspide izan da asteotan. Alde batetik, Iruñeko Osasuna taldekoak pare bat entrenamendu egin dituzte Mastegi futbol zelaian, Irungo Gal Stadium-a bertan aritzeko moduan ez zegoela-eta. Bertzalde, Mattin Irazoki, orain arte Real Union taldean ari zen 23 urteko lesakarra, Eibar taldeak fitxatu du, bigarren mailan aritzeko. Mattinek Levante taldearekin fitxatzekoan zegoela jaso zuen eibartarren deia eta berehala sinatu zuen kontratua. Akautzeko, astelehen honetan ekin dio aurredeboraldi berri bati Beti Gazteko talde nagusiak.

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
© 948627573 • LESACA

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 948 637 127
LESACA

Lurrindend
Marian
endiberr
Estetika
Behoko Plaza 8 • 948637791 • LESACA

ANA
janaridenda
Bittiria, 41 • © 948637518
LESACA

BITTIRIA
HARATEGIA
© 948 627555
Bittiria, 43 • LESACA

Zazpi bikotek bete dute ezkontzako berrogeita hamargarren urtemuga

Familiarekin elkartzeaz gain, Arkupeak elkartearen omenaldia jaso dute

PELLO APEZETXEA

1949garren urtean hamahiru ezkontza ospatu ziren herrian. Beraietatik zazpi bikotek gogoratu ahal izan dute egun hura, berrogeita hamar urteren buruan.

Oiarburuko Pablo Goienetxe Irigoien eta M^a Josefa Danboriena Sanzberroren ezkontza izan zen lehenengoa, hilbartzaren 19an. Landaburuko Bordako Jose Mari Danboriena Etxeberria eta Purificación Danboriena Etxeberria otsailaren 23an ezkontu ziren. Egun berean, Domekeneko Antonio Ameztoui Irisarri eta Pakita Danboriena Etxeberria. Hurrengo, Armitxeko Santiago Mikelestorena Irigoien eta M^a Carmen Zubieta Iparragirre, apirilaren 20an. Maiatzaren 25ean, Sus-



Urrezko Ezteiak ospatu dituzten zazpi bikoteak.

Argazkia: Pello

pelaldeko Toribio Agesta Arburua eta Perpetua Arburua Iturria. Behekozubiko Jose Mari Berrueta Zubieta eta Milagros Santesteban Elizondo buruilaren 8an. Eta, hondarrean, Jose Paul Corrales eta Anuntxi Agesta Arbu-

rua, buruilaren 17an. Urte hartan ezkontutako bertzeak hauek ziren: Jose Larralde Iparragirre eta Anunciacion Arburua Sanzberro, Nicolas Sanzberro Goienetxe eta Maria Paz Irisarri Iturbide, Pedro Yurrebaso Lizarralde eta

M^a Dolores Goienetxe Larralde, Guillermo Marugan Sastre eta Perpetua Agesta Arburua, Nicolas Ozkariz Pika-bea eta Margarita Pika-bea Irazoki, Jose Mike-larena Baleztena eta Magdalena Larralde Sorondo.

Udaleko lan batzordeak

Udalbatz berriko lanbatzordeak honela banatu dira: Kultura eginkizunetarako, Lakateneko Bordako Patxiku eta Errandoneko Garazi; Euskara Mankomunitateko jabetuko da lehenengoa, eta eskola-koaz bigarrena. Mendietarako, Iriberriko Jose Jabier eta Joanabarreneko Agustin. Hirigintza edo herriko obrei dagokienez, Aldalurko Jose Mari eta Joanabarreneko Agustin. Ekonomia, industria eta desarroilorako Telleriko Migel Mari eta Harnaldeko Manuel. Ceder-narako ordezkaria, Agustin. Bertizko Turismo Partzuergorako, Manuel. Osasun Kontseilurako, Jose Mari. Gizarte Laguntzarako Mankomunitatea eta Hondakin Mankomunitatearen ardurua Migel Mari hartu du. Okindegian, berriz, Migel Mari eta Agustin izanen dira ordezkariak. Udalen bilgurak, hiru aste-tik, ortzegunez, 8etan.

Larraburua elkarteak bazkaria aldatu du

Herriko Bestetan egiten duen bazkaria, Larraburuan egin du hondar urteetan. Aurten, ordea, Harizpen izanen da.

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 948630735

HERRIKO OSTATUA

Jatetxea

948635290 **ETXALAR**

«**USOA**»

NEKAZARI KOOPERATIBA

Ganaduarentzat pentzurik egokiena

Tfnoa: 948635214

ETXALAR

KAXULA

- Sukaldeko tresnak
- Opariak
- Pinturak

Albistur, 51 LESAKA

© 948 63 75 58

HARITZPE

948635235
948635038

JATETXEA

GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK

Astebukaera eta besta egunetan zabalik. Ortziralak enkarguz.

PIKABEA

Molinero drogerian galdetu

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

lzpaz 8 • © 948 630240 - 948 631495 • **BERA**

IGANTZI

Parrokiaren eskurtsioa abuztuaren 31n izanen da

Dagoeneko hasiak dira Biltoki elkarteko moldaketak


OSKAR TXOPERENA

Parrokiak aurten ere antolatu nahi izan du eskurtsio tiki bateliza garbitzen dutenentzat. Joan den urteko ekainean Donostia inguruan ibili baldin baziren, Nafarroako Erriberari eginen diote aurtengo bisita, abuztuaren azken egunean, asteartez. Bardeetara dira joatekoak goizez eta bazkaldu aintzinetik denbora izanez gero fabrikaren ere bisitatuko dute. Azkenik, "El Moderno" jatetxean bazkaldu ondotik, San Martin de Unxeko haize errotak ikusiko dituzte. Etxe bakoitzeko

lagun bati ordainduko dio parrokiak autobusa eta ondorioz 2.300 pezeta ordaindu beharko ditu; gainerakoak 3.300. Berendu bat ere izanen da La Villa jatetxean irailaren 3an arratsaldeko 7tan. Dohainik josten ahal da etxe bakoitzeko lagun bat, bidaian izan ez bada, beti ere. Gainerakoek 1.500 pezeta oradindu beharko dituzte. Izenematea abuztuaren 15a bitartean egonen da irekia, Nafarroako Aurrezki Kutxan. Ongi pasa!

Igeriketa ikastaroak abuztuaren

Urtero bezala, jendea plantatzen baldin



Pala txapelketaren finalak abuztuaren 7an

Heldu den asteko larunbatean, hau da, abuztuaren 7an, jokatuko dira Biltoki Elkarteak antolatutako Igantziko Pala Txapelketaren finalak. 1997an, jokatuko den azkeneko Txapelketan Josetxo Txoperena eta Imanol Telletxea izan ziren garaileak. Oraingoan ere elkarrekin jokatzen ari dira eta fabrikaren artean daude dudarik gabe. Orain dela hiru edo lau urteko finalean aterako argazkia dugu hau, frontoi zaharrean, jakina.

Argazkia: Oskar Txoperena

bada, igeriketa ikastaroak izanen dira abuztuaren ere. Gogoarekin baldin bazabiltzate, badakizue.

Dantzarien entsaioak astearte eta ortzegunero

Hauxe izaten da dantzariarentzat lanik haundiena egiteko garaia.

Aspaldi xamer hasi ziren eta astearte eta ortzegunero izaten dituzte entsaioak Itsaso eta Amadeorekin.

Moldaketak auzolanean Biltoki Elkartearen

Azkeneko Batzar Nagusian Biltokiko egoitzan zenbait mol-

daketa beharrezkoak zirela ikusi eta obrak egitea erabaki zen. Momentuz, komunak eta biltegi edo almazena urratzen hasteko auzolanean egin zen uztailaren 17an, eta horiek moldatzen direnean sukaldaria eta egoitza guzurrekin zer egin pentsatu beharko da.

Mmanuel Zamorano
 adustriala
 Bernizadurak
 Pintura
 orohar
 ☎ 689 042 671 • 948 637556
 Bittiria, 37 • LESAKA

EKAITZA kafetegia
 COSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA
 Lagunekin elkartzeko toki egokia
 Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 LESAKA

CONSTRUCCIONES MECANICAS
BEARIZUN S.L.
 Makinaria eraikuntza
 Moldaketak eta despiezea
 Mantenimendu mekanikoa
 Torno, fresadorak, errekifikadorak
 Igantziko Bentak • ☎ 948627572 • Faxa: 948637313

LEGARRA
 Legarrea, 9 • ☎ 948 637 030 • LESAKA

IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU

- Liburuak
- Papertegia
- Tabakoa
- Plastifikazioak egiten ditugu
- FAX publikoa
- Enkuadernatzeak
- Inprenta lanak

Enkuadernatzeak
 espiralean ere
 egiten dira

ATM S.A.

AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantziko Bentak • ☎ 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

ALDO ESTATERA
 LESAKA

Udaleko batzorde guziak banatu ziren uztailaren 15eko batzar berezian

Eliza garbitzen dutenek eskurtsioa egingen dute Erriberara abuztuaren 31n

ELIXABET ETA GARBINE

Udalbatza berriak uztailaren 15ean egin zuten batzar berezian banatu ziren batzorde ezberdinetan lan egingen duten zinegotzien ardurak. Honelaxe gelditu dira:

- Hirigintza eta Trafiko batzordea: Xabier Zugarramurdi (EH) eta Jesus Mari Isuskiza (PNV).

- Mendi eta Auzolana batzordea: Teodoro Pikabea (EH) eta Alberto Pikabea (PNV).

- Kultura Batzordea: Idoia Etxeberria (EH) eta Amaia Telletxea (EH).

- Zerbitzu Batzordea: Idoia Etxeberria eta Amaia Telletxea.

- Hornidura eta mantentimendu Batzordea: Jose Ramon Amoros (EH) eta Jesus Mari Isuskiza (PNV).



Eliza garbitzen dutenen eskurtsiora joaten ez direnak, Zahar-Txokon egingen den berendura agertzeko aukera izanen dute. Artxibokoa

Osasun Batzordea: zinegotzi guziak.

Bertze urtetan bezala, batzarra hilabeteko lehendabiziko ortzira-lean, arratsaldeko 7,30etan bilduko da, uztaila eta abuztuaren ezik. Hilabete hauetan, lehendabiziko ortzegunean, goi-

zako 11etan elkartuko dira. Lehendabiziko alkateordea Idoia Etxeberria izanen da eta bigarrena, Jesus Mari Isuskiza.

Eliza garbitzaileen eskurtsioa

Abuztuaren 31n, eli-

za garbitzen dutenek egun eder bat pasatu ahal izanen dute Erriberan. Bardeak eta Argetasako Del Yugo ermita bisitatuko dituzte eta Unxeko haize parkea ere ikusiko dute. Bidai honetarako autobusaparrukiak ordaintzen dio

familia bakoitzeko pertsona bati eta bazkaria norberak ordaindu beharko du. Eskurtsiora joan nahi ez dutenentzat, berriz, irailaren 2an, arratsaldeko 7etan berendua izanen da Zahar Txokon. Eskurtsiora edo berendura joateko Martin Ibarrolari eman behar zaio izena. Ordainketa herriko edozein bankutan egiten ahal da abuztuaren 15a baino lehen.

Antena moldatzeko faktura onartu da

TTIPI-TTAPA TELEBISTA eta telebista kate pribatuak ikusteko hainbat aldaketa egitea beharrezkoa zenez, Gabriel Leizari eman zaio lan horiek egiteko baime-na. Hori dela eta, aurkeztu duen faktura Udalak onartu du, baita ordaintzeko agindua eman ere.

ttipi-ttapa internet
<http://www.jald.com/bera/tpi-ttapa>
 E-mail: ttipi-ttapa@jald.com

SAROB
 okindegia 
SANDERS Pentsuak
 Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA


GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
 Itzea, 4 • BERA
 © 948 630 763


ERROTAZAR
 Eztegara 3 • Tfnoa: 948 630 198 • BERA
ZELAIA Harategia
 Agerra Auzoan


Ostargi Optika
OPTIKO OPTOMETRISTA

- Lentillak
- Ikusmen azterketa orokorrak
- Begietako tentsioaren kontrola
- Hurrei errebisioa egingen zaie

**Eta behar izanez gero...
 ERA GUZTIETAKO
 BETAURREKOAK
 DITUGU ZURETZAT**

Bidasoa karrika, 8 • BERA • © 948 63 07 53

SUNBILLA

San Tiburtzio bestak abuztuaren 10etik 14ra

Abuztuaren 7an, berriz, Duatloia eta gaupasa izanen dira

Larunbata, abuztuak 7 5etan Duatloia (15 kilometro bizikletan, 5 kilometro lasterka). **12etan** Gaupasa Herriko Plazan: Kubatik etorritako talde bat eta JALISKO BAND.

Asteartea, abuztuak 10 Bezpera 8etan txupinazoa eta ondokit kalejira herrian barrena. **12etan** dantzaldia GAUBELA taldearekin.



Herriko neska dantzariak duela zenbait urte ateratako argazkian.



Goitibera lehiaketa ederra suertatu zen iaz. Aurten ere Garaikobordatik Fondaraino goitik beheiti ibiliko dira tramankuluak.

Asteazkena, abuztuak 11 San Tiburtzio Eguna 10etan dianak. **11etan** Meza Nagusia. Ondoren dantzak EREINTZA taldearen eskutik. **6etan** herriko pilota txapelketaren finala: Mutilen pala txapelketaren finala, mutil eta nesken frontenis txapelketen finalak eta gaztetxo

esku pilota txapelketaren finala. **8etan** aitzur tiraketa, zubi berrian. **10,30etan** su artifizialak. **Arratsaldez eta gaez** dantzaldia GAUBELA taldearekin. **Ortzeguna, abuztuak 12 10etan** dianak. **10etan** kadeite mailako txirrindularien karrera. Ibilaldia: Sunbilla-Aldaera-Sunbilla-Aldaera-

Larrakaitz-Sunbilla-Aldaera-Sunbilla-Ziga-Sunbilla (helmuga). **6,30etan** profesionalen arteko pilota partiduak. **Arratsaldez eta gaez** dantzaldia JATOR taldearekin. **Ortzirala, abuztuak 13 Haurren Eguna 10etan** dianak. Goizean

ESPELOSIN ERAIKUNTZAK

Auloa baserria
Tfnoa: 948 45 07 73
SUNBILLA

BUSTITZ OSTATUA

Lekueder
© 948 45 05 04
SUNBILLA

IDEAPAINDEGIA

"ARTAZI"



Ezkontza, bataio eta jaunartzeko opariak

Ongi pasa bestetan

Gindal Ibiltokia, 3 - 1ºD
Telefona (948) 450844 • **SUNBILLA**



Brasan egindako arrain eta haragietan espezializatua
Bezperan Baztan Zopak

Bestak ongi pasa!

Iruña-Irun errep. 59 km. © 948 451762 • **DONEZTEBE**

IRIBARREN

FONDA eta HARATEGIA

Bestak ongi pasa!

Donibane karrika
Tfnoa: 948 45 01 80
SUNBILLA

MALERREKA



Danborradak ikaragarrizko arrakasta izaten zuen duela urte gutti arte. Galdutako ohitura da, zoritxarrez.

gaztelu puzgarriak, karts eta bertze jokuak. **12,30etan** Goitiberak (Garaikobordatik Fonda Ostaturaino). **4,30etan** Olegi parajea, herriko plater tiraketa. **6,30etan** urjokoak udal igerilekuan. **Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia JATOR taldearekin.

Larunbata, abuztuak 14 Gazte eta Ezkonduen Eguna

10etan dianak **12etan** kukaña Herriko Etxe ondoko presan. **2,30etan** kuadrilenbazkaria (txartelak salgai ostatueta). **10etan** herri afaria. **2etan** dantza txapelketa.

Beintza-Labaiengo bestak uztailaren 30etik abuztuaren 3ra

Igandean, Mindegia aita-emeak Nazabal eta Barberenaren aurka ariko dira

Ortzirala, uztailak 30
8etan altxaferoak beste hasieraemateko. Ondoren kalejirak herriko trikitilariekin. **9etan** baztan zopak Herriko Ostatueta. **12etan** dantzaldia MODESTOrekin.

Larunbata, uztailak 31
11etan kalejira herriko trikitilariekin. **Eguediko** **12etan** eta **arratsaldeko** **5etan** Jolas Parkea. **Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia GAUBELA taldearekin.

Igandea, abuztuak 1
10etan argi soinuak Iturengo txistulariekin.

12etan Meza Nagusia. **1,30etan** aizkora apostua: Mikel eta Patxi Mindegia, Nazabaleta Barberenaren aurka. **Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia GAUBELA taldearekin.

Astelehena, abuztuak 2
10etan kalejirak. **11etan** Plater haustea. **1etan** Doneztebeko Musika Eskolako akordiolariak. **5etan** Gorritiren abereen erakusketa. **Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia GAUBELA taldearekin.

Astearte, abuztuak 3
10etan kalejirak Iturengo txistulariekin. **1etan** Herri

Kirolak, Iturrondo elkar-teak antolatua. **2etan** herri bazkaria: Xebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariekin eta Jon Barberetxe abeslariarekin. **Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia MODESTO akordeolariarekin.



MAIA
HERRIKO OSTATUA

Ongi pasa herriko bestak!

Karrika Nagusia
© 948 45 01 54
SUNBILLA

SANZBERRO
eraikuntzak

*Etxebizitzen moldatzea
Igeltsero lanak orokorrean*

Donibane karrika
Tfnoa: 948 450 095
SUNBILLA

IRVRIBIETA

**ostatu
jatetxea**

*Ongi pasa
bestetan!*

Irur-lruña bidea, 61'5 kma
© 948 450 399
SUNBILLA

Maria Jesus

HARATEGIA

Ongi pasa bestetan!

Karrika Nagusia, 11
Tfnoa: 948 45 15 30
SUNBILLA

ARRUTI BOTIKA

Ongi  pasa

Karrika Nagusia • 948 450275 • **SUNBILLA**



Ongi
pasa
herriko
bestak

**BEINTZAko
OSTATUA**

© 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN

MALERREKA

Gazteluko Santo Domingo bestak abuztuaren 3tik 8ra ospatuko dira

Ortziralean zikiro jatea eta galtzontzilo eta kulero lasterketa izanen dira

Asteartea, abuztuak 3
7,30etan altxaferoak bes-
tei hasiera emanez. Triki-
tilariak alaituko dituzte ka-
rrikak gero. **9etan** Baztan-
Zopak Gazteluko Ostatuan.
Asteazkena, abuztuak 4
Santo Domingo Eguna
10etan kalejirak txistula-
riekin. **11,30etan** Meza
Nagusia. Ondoren salda,
Gazteluko Ostatuan.
6,30etan Lesakako trikiti-
xa taldea. **Arratsaldez eta**
gauetz dantzaldia JOXE
ANGEL akordeolariarekin.
Ortzeguna, abuztuak 5
10etan kalejirak. **11etan**
mus txapelketa. **Goizez eta**
arratsaldez Motorrak eta
Gaztelu Haizatua. **Arra-
tsaldez eta gauetz** dan-
tzaldia JOXE ANGEL akor-
deolariarekin.
Ortzila, abuztuak 6
10etan kalejirak. **2etan** zi-
kiro jatea. Bertsolariak:
Manolo Arozena eta Bittor
Elizagoien. **6etan** Herri
Kiolak. **Arratsaldez eta**
gauetz dantzaldia JOXE
ANGEL akordeolariarekin.
Ondoren, «kantzontzillo eta
bragen» lasterketa.
Larunbata, abuztuak 7
10etan kalejirak. **11,30etan**
pilota partiduak. **5etan**
Plater Tiraketa. **Arratsal-**

dez eta gauetz dantzaldia
MIKEL eta AINARekin.
10etan gazteen afariapla-
zan.
Igandea, abuztuak 8
10etan kalejirak. **1etan** aiz-
kora apostua: Mindegia
Senosiainen aurka.
6,30etan pilota partiduak.
8etatik 11etara dantzaldia
JOXE ANGEL akordiola-
riarekin. Bestak ongi aki-
tzeko Txokolate jatea
Gazteluko Ostatuan.

1950. eta 60. hamarkade-
tan ateratako argazki
hauetan, ea zenbat lagun
ezagutzen dituzuen...



**ETXANDI
TXOKO
jatetxea**

Bazkari, afari
eta gosariak

ITUREN
☎ 948 450 491

Iturgintza eta kalefakzioa
Valentin Cubero

Tfnoa.: 948 45 17 63 • GAZTELU

GAZTELUKO OSTATUA

Besta ederrak opa dizkizue bezero, guzici!
Bestetako igandean xardin-jatea

Tfnoa: 948 45 01 05 • GAZTELU

t

**ttipi-ttapa
telebista
Malerrekan
62. kanalean**

Oraindik ongi ikusten ez baduzu deitu
☎ 948 63 70 70
Javier Eneterreaga (Lesaka)



Euskal Kultur
Erakundearen
laguntzaz egindako
gehigarria

Gehigarria

Errakozu ene partez mila goraintzi Sarako 'Muziu' Barnetxi ⁽¹⁾

Errakozu ene partez mila goraintzi
zure adiskide: "muziu" Barnetxi
Sarakoari

Ongi pena dudala segurki,
Egundaino ez dudala hura baizik utzi!
Satifatu gabe ederki!

Kausa zer den berak badaki...
Neskatile gaztekin omen dela bizi,
libertituz ederki.

Oraino ez da libertitu aski
Ez eta're ez ditu kitatu're naski.
Haren begiak hain dire argi,
Izarra iduri!

Eta koloriak, ehun ostoko arrosa
bezin gorri.

Neskatile gazten ilusi garri...
Karesatzen ditu ederki,
Denboraz... Balia bedi...

(1) Leheteko orduko
nagusiari eskainiak,
ene ustez.



BERGARA, Ganix
«Txistuk» eskainiak

Sortu naiz Iparrean

Uso ume batek kondatzen du bere
hurreko bizia, bere aita amen er-
dian; amak emaiten dazko zonbeit
kontseilu egin beharko duen
udazkeneko piaia luzeari buruz.

1 Sortu naiz iparrean, udaren hastean,
Uso ume bakarra ohantze batean
Aitamek naute hazi, aitamek naute hazi,
lumatu artean!
Zoriona gozatuz hiruek batean.

2 Mundurat agertzean bilhuzia nintzen
Amattok hegalean ninduen berotzen.
Hazkurriaren biltzen, hazkurriaren biltzen,
Aita zen ibiltzen...
Nork erran ni ttikian zenbat gosta naizen!

3 «Zure hegalek aski lumatu orduko,
Hosto eror denbora, zauku etorriko.
Iparretik Hegora, Iparretik Hegora,
gare airatuko;
Nik lagunduz bidean etzare galduko».

4 Iruzkia zenean sortzera apaldu,
Ihiztariak zuen sarea zabaldu.
Ez da behar itsua, ez da behar itsua,
gidaritzat hartu;
ez bertzen erranari sobera fidatu.

5 Zonbat uso oinezko... hegalek gabeko
Ihiztariak aiher hetaz jabetzeko!
Kasu egin dezaten, kasu egin dezaten
ez naiz ixilduko;
Bertzela saretara tuztela bilduko!



Airea:
Iruhen hari nuzu
BERGARA,
Ganix «Txistuk»
eskainiak

Biba Senpertarrak

1 Senpertarrek pilota dute arras maite
Ohore frango ere hortik biltzen dute
Aurten baituzte,
bi mutil gazte,
bi plekari haundi
Champion de France direnak:
Audet-Behastegi

2 Orroitzeko partida senpertarrendako
Atarratzeko hura bide da izango
baziren asko,
joanak goixko,
ikusteko ongi,
Champions ateratzen Audet-Behastegi

3 Aintzina Behastegik, gibeletik Audet
Elgar ongi aditzen zoin den eder, laket
Aitor dezaket
Nola norbaitek
zinez azkarregi
suertatu zaizkote, Audet-Behastegi

4 Partida finitu-ta, plazaren erdira
Medailak eskuetan Ybar zen atera
Medail bedera
Musu bedera
zioten ezarri
Oihu eginez biba:
Audet-Behastegi.

5 Senperen plekariak betitik badire
Teofil, Santiago, eta Xabatene
Sein, Betriene
Peru, Nottari
Iratzoki ere
hoiekien ta bertzekin: Audet-Behastegi.

6 Gaur, oraino lur huntan izan bazen Matxin
goretziko zintuzten bere ditxoekin
ordain ni naiz jin,
bi pertsurekin
koblari txarregi
maneran kantatzeko, Audet-Behastegi.

Airea:
Aitak eman zerautan

Senpertar gazte
batek, 1936an.
Jan Pier SOUDRE
IXTILARTE-ren
eskutik



«Gure kantu zaharrak kontserba ditzagun...»

Zinez, xoragarriki, iragan da Oxtikenean, Uztailaren 12an, «Kantu zahar ez ezagunaren eguna». Hor 70 bat pertsona bildu ziren mahain baten inguruan, denak elgarrekin beren bozak juntatzeko. Hastapenean, Mixel Mendibouren sar-hitzak eman zaukun bi gogoeta egiteko mamia: «*Ikusi ditugu, paper zaharrak, berdin xaramelak, urteek horituak, hantxe ederki plegatuak mihise tartean gordeak. Ia pipiek unkitzen hasiak, bainan hitzak salbatuak, ezin hunkituak balire bezala. Funtsean egiaz hala baita. Ikusi ditugu, ez dakinungo buru muina zokotik kantuak gogoz emaiten...beren burasoeri entzunan eta ikasiak...».*

Zazpi orenez kantu eta kantu

Baginakien Euskal Herriko kantu guzien altxorraigarri aberatsa zela, bainan ez dugu oraino bere zola unkitzekotan, ikusiz Oxtikenean zonbat kantu ez ezagun entzun ditugun, bertze kantu klaziko guzien erdian... Kantari zombait, behatu ahal izan ditugu, zazpi orenez, arratsaldeko bietariki 9ak arte, eta oraino beren «errepertorioa» ez zaukaten

segur bururatua...

Aipamen berezi bat, Raphael Parejo, Euskal Musikaren Ikerlariari, Jakes Larre, Euskal Kultur Erakundeko Kantuaren arduradunari, bai Idoia Larzabal, "Gure Irratia" Irratiako animatzaileari, hauek, buruen buru, grabatu dituztelakotz, egun hortan, eman diren kantu guziak.

Herriko kantari andana bildu zen

Esku zarta beroenak mezezi dituzte ere kantari hauek guziek: Aramendi Jaun Anderea Biarritzekoak, Bergara Ganix "Txistu", Bessonard Jean Noël, Billon-Zamora Fifine, Bonnet-Jeannou Gracie, Bonnet-Borthaire Angèle, Borda Pierrot, Brave Martxel, Dokelar- Ferreroineko anai-arrebak, Dufau Bidartekoa, Elhorga Laurent, Etxeverry Ernest, Fagoaga Gabi, Fagoaga Pello, Lazkano Jan-Pier, Mendiboure Paxkal, Minaberry Urkoikoa, Peyroutet Behauzekoa, Soudre Jan Pier, Tapia Janbattit, Txomin Arbonakoa, Zamora Benane...

Arratsalde partean agertu ziren ere denen plazerrarentzat, Joana Gabarrus,



«Matxin» pertsulari Senper-tar zenaren alaba, bai ta Mayi Dokelar-Hourcastagné, bere bozaz, hain famatua ezagutu duguna Senperen.

Pentsatzenda, egun batez, liburu bat eta CD bat bildu kantu zahar guziekin, ager-taratzea, pentsatzen ere, aurt-en bezala, datorren urtean,



Erudio de la Rivelle

gertakizun bera, Oxtikene-koek, erreberrituko dutela, Euskal Kultur Erakundeak, Ttipi Ttapa eta Kutxa bankuak lagundurik...

Oraino esker mila eta gehiago, kantu bazkarian zorrioneztatu gaituzten guzietan... eta agian, "heldu den" urtea arte...



Austin Zamora
1999 / 07 / 13

Antolatzaile, gonbidatu eta kantariak, denak batera egun zoragarri baten buruan, Oxtikenea elkartearen atarian

Senperen Euskal Telexista (ETB)



a 15 urte Euskal Telexista itsas bazterean ikusten ahal dela. Geroztik, jendeak galdeginik, pixkanaka pixkanaka,

Herriko Etxeek hagak muntatu dituzte eta gisa hortan Saran bezala, Garazin, Xubero aldean arras ongi ikusi daiteke: pilota partidak, bertsolariak, berriak, Iparraldeko Orena, elgar hizketa, eta abar...

Jaizkibel mendiari buruz diren kartierak edo auzoak dira ETB hobekien hartzen dutenak. Bertze batzuek, adibidez, Helbarrun, Ibarrun, Urguri; Ur Xuri ibai eskuin alde; Olha, Amotze, Aintzira

parte bat, ez dute deus ikusten. Xerxebruit edo Amezketa batzuentzat Urdazuriko haggaz baliatzen dira. Sarako Herriari haggemaitea 20.000 Libera gosta zaio, Sarako Herriko Etxeko idazkaritzatik emandako xifren arabera. Gainerakoa, ETB eta herrien arteko sindikatak.

TTIPI-TTAPAREN bitartez, jendeak galdeginik eta gure helburua euskara zabaltzea izanik, eskakizun hau plaza-ratzea onartu dugu: Senpereko herriari galdatzen zaio behar dena egin dezan



Larrunek ETB eta ttipi-ttapa telexista denetara zabalduko duelarik ez da bertze hagarik beharrik izanen

ETB senpertar guziek har dezaten. Horretarako galde hau. Ondorioak Herriko Etxeari

helaraziak izanen dira, Euskal Telexistara ere eta Herrien arteko sindikatari.

Euskal Telexista ez dugu ikusten eta ikusi nahi genuke:

Familian lagun gira
Izena: Deitura:

Etxea:

Siñadura:

Euskal Telexista ikusten dugu eta elgertasunez siñatzen dugu:

Familian lagun gira
Izena: Deitura:

Etxea:

Siñadura:

Zure errepusta

Igor zuzenbide huntara:

André Harisgain
Gaxintoenea
64310 SENPERE



MALERREKA-BERTIZARANA


Filme laburren II. Zinemaldian 37 filme ikusiko dira

Pelikula onenak Urrezko Iratzea eta milioi bat pezeta eramanen du

JAIONE ETA ALBA

Bertziko Turismo Partzuergoak antolatutako Filme Laburren II. Zinemaldian, 37 pelikula parte hartuko dute. Irailaren 6tik 18ra burutuko da eta bigarren zinemaldi honek, joan den urtekoarekin konparatuz gorakada haundia izan du. Nazioartekoa dela argi gelditzen da, hiru pelikula mexikar, kolonbiar bat eta Venezuelako bat aurkeztu baitira.

Lehiaketa aprobeztatzat, abuztuaren 28tik irailaren 19ra, Berako Kultur Etxean «Euskal Herriko zinegileak 1896-1998» erakusketazabalik egonen da. Bertzalde, zenbait herritar zonalde honetan grabatutako filme batzuk botako dira. Sari banaketa irailaren 18an egingen da Berako Kultur



Jorge Iribarren, Doneztebeko kaikugilea

Malerrekan kasik galdua dagoen ohitura berreskuratzen ari da Jorge Iribarren doneztebarrak: kaikuak egitea. Tamaina guzietakoak ikusgai –eta erosgai– daude Ameztia jatetxean duen erakusketan.

Argazkia: Zaldua

Etxean. Sariak hauek izanen dira: urrezko iratzea eta milioi bat pezeta laburmetrai onenari, 300.000 pezeta eta zilarrezko iratzea bigarrenari eta sari bereziak.

Arkupeak elkarteak Aralarera

Arkupeak elkarteak Aralarako San Migelera joanen da heldu den ortziralearan, abuztuaren 6an. Meza goizeko

11etan izanen dute santutegian eta gero Almandozera itzuliko dira, Beolan bazkaltzera. Bazkalondoan dantzatzeko modua izanen da, arratsera arte.

flash

Zuzenketa Sunbillako berrietan

Sunbillako Herriko Etxeko batzordeen banaketa idaztean zenbait akatsegin genituen. Hezkuntza eta Kultura Batzordea zuzenduko duen rakel Urtxegi EH taldekoa da eta ez EAkoa. Mendien Batzordea nork zuzenduko duen ere erabakia dago, EAko Jose Manuel Zugarramurdik hain xuxen. Herrigintzan, Martin Irazoki eta Patxiku Zelaieta ariko dira.

Doneztebeko Osasun Zentroa

Berriki argitaratu duen triptikoan akats bat ageri da: Emakume klimatarioarentzat atentzio zerbitzuko arduraduna Kontxi Calvo da eta ez Lourdes Eneterreaga. Honek erlajazio ikastaroak ematen ditu (biak 948 456001 telefonoan).

Onddo eta ziza biltze lehiaketa Elgorriagan

Irailaren 19an izanen da, baina parte hartu nahi duenak abuztuaren 18a baino lehen izena eman behar du. Argazki Rallya irailaren 18an izanen da.

Ibarrola Mertzeria
Haurrendako arropa
0-14 urte
Parrokia kalea 6 - Doneztebe
948450463

Harieruz
LENTZERIA
Parrokia 11
Tfnoa: 45 01 12
DONEZTEBE

PITTI MINIESKABAZIOAK

Mobila. 616 513 491 - DONEZTEBE

APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

GOIZUETA

Aurtengo aurrekontua onartu du udalbatza berriak

175 milioi pezetatik 65 terdi inbertsioetan erabiliko dira

ESTEBAN AROZENA

Euskal Herritarroren taldeak osatutako udalbatzaren lehenengo erabakietako bat 1999ko aurrekontua onartzea izan da, ia 175 milioi pezetakoa, hain zuzen.

Zenbaki potoloei gainbegirada bat eman ez esan, inbertsioena dela gastuenataleko kapitalurik haundiena 65 milioi terdirekin; ondusun arruntak eta zerbitzuen gastuak, 62 mi-

lioitara igoko dira; langileen lansariak 37 milioitara; transferentzi arruntak 7 milioitara; finantza pasiboak milioi bat terdira, eta finantza gastuak milioi erdi batera.

175 milioi gastatekotan, gauza jakina da beste horrenbeste jaso beharko duela Herriko Etxeak. Horrela, 85 milioi pezeta ondareko diru-sarrerak izanen omen dira; 30 milioi, berriz, kapital transferentziak; 31 milioi transferentzia



Garaipen berriak pilotan

Herriko pilotarien garaipenak kontatu beharrean aurkitzen gara ale hone-tan ere, Igor Apezetxeak uztailaren 17an Errenterian lortutako txapela du-gularik aipagai oraingoan. Mikel Ruiz zuen aurrean lagun Igorrek, erdi goizuetarra hau ere. Argazkian berriz, uztailaren 3an Labriten Eskolarteko finalean partaide izan ziren lau goizuetarrak ikus ditzazkegu.

arruntak; 19 milioi terdi zuzeneko zergak; 2 milioi terdi tasak, eta 2 milioi inbertsio errealak.

Txatarrarik ez botatzeko agindua

Gaur egun su-hil-tzaileek erabiltzen du-

ten eraikuntzaren ondoan txatarrarik gehi-go ez botatzeko agin-dua eman du Udalak. Hala ere, badirudi he-rritarren mesedetarako izanen dela debeku hau, hemendik aurrera etxez etxeko bilketa eginen dela baitio honen berri

ematen duen bandoak.

Txatarra, altzari, koltxoi zahar... edo antze-koak etxetik kendu nahi dituenak Udaletxera deitu behar du. Aipaturiko bilketa ber-rriz, hilaren azkeneko ostegunetan eginen omen da.

ARESO

Zenbait bide zolaberritzeko lanak hasiko dira laster

Astomelako igerilekua prestatzeko 4 milioi

JUANA M^a SAIZAR

Egun batetik beste-rra Semeroara, Maienea ra eta elizara doazen bi-deak zola berritzeko lan-ak hasiko dira. Herriko argiak berritzeko ere aprobetxatuko da.

Errekako igerilekua prestatzeko 4 milioi

Astomela erreka

igerilekua prestatzeko aurrekontua 4 milioi ter-dikoa izan da eta Nafa-rroako Gobernuak er-dia subentzionatzea lor-tu da.

Udal artxiboa txukuntze lanerako 700.000 pezeta

Udal artxiboan dau-den paperak txukuntze-ko 700.000 pezetako di-

rulaguntza eman du Principe de Viana era-kundeak. Laster hasiko dira lan hau gauzatzen.

Objetoreek Gizarte Zerbitzuan lan egiteko aukera izanen dute

Udaletxeko Gizarte Zerbitzuek herriko kon-tzientzia eragozle edo objetoreei ordezko zer-



Semeroara, Maieneara eta elizara doazen bi-deak zolaberritzeko lanak hasiko dira. Artxibokoa

bitzua herrian egiteko aukera eskaini nahi die. Honela, etxean lagun-tza behar duten guziek (mandatuak egiteko,

prentsa irakurtzeko, konpainia izateko, eta-bar...) Aresoko Udaletxean egin behar dute eskaria.

Udaleko batzordeak eratu ziren uztailaren 19ko batzarrean

Guzira hamalau lan batzorde izanen dira legealdi honetan

JOSEBA AZPIROZ

Uztailaren 19an egindako batzarrean, honako batzorde hauek eratzea erabaki zuen Udalak:

• Mendia:

Lehendakaria: Bixente Usabiaga (EH); Bokalak: Juan Oronoz (EA) eta Jose Javier Mugika (UPN).

• Hirigintza-herrilanak:

Lehendakaria: Bixente Usabiaga. Bokalak: Juan Oronoz eta Flora Mitxelena (UPN).

• Giza mugimenduak eta Gaztedia:

Lehendakaria: Tomas Azpirotz (EH). Bokalak: Arantxa Sagastibeltza (EA) eta Jose Javier Mugika.

• Langilegoa:

Lehendakaria: Tomas Azpirotz. Bokalak: Flora Mitxelena eta Juan Oronoz.

• Euskara:

Lehendakaria: Maite Sarobe (EH). Bokalak: Arantxa Sagastibeltza eta Flora Mitxelena.

• Ingurugiroa:

Lehendakaria: Jose Javier Mugika. Bokalak: Jaione Astibia (EH) eta Fernando Garcia (EA).



Udal talde guzien artean banatu dira hamalau lan batzordeak.

lak: Jaione Astibia (EH) eta Fernando Garcia (EA).

• Ekonomia:

Lehendakaria: Jose Mari Azpirotz (EH). Bokalak: Juan Oronoz eta Flora Mitxelena.

• Turismoa:

Lehendakaria: Jaione Astibia. Bokalak: Juan Oronoz eta Jose Javier Mugika.

• Pestak-kultura:

Lehendakaria: Fernando Garcia. Bokalak: Jaione Astibia eta Jose

Javier Mugika.

• Hezkuntza:

Lehendakaria: Arantxa Sagastibeltza. Bokalak: Eleni Zabaleta (EH) eta Jose Javier Mugika.

• Kirola:

Lehendakaria: Fernando Garcia. Bokalak: Jose Mari Azpirotz eta Jose Javier Mugika.

• Osasuna-Ongizatea:

Lehendakaria: Arantxa Sagastibeltza. Bokalak: Flora Mitxelena eta Maite Sarobe.

• Hondakin solidoak:

Lehendakaria: Flora Mitxelena. Bokala: Jaione Astibia eta Arantxa Sagastibeltza.

• Musika:

Lehendakaria: Jose Javier Mugika. Bokalak: Eleni Zabaleta eta Arantxa Sagastibeltza.

Bestalde, Bixente Usabiaga lehen alkateorde, Juan Oronoz bigarren alkateorde eta Jose Javier Mugika hirugarren alkateorde izendatu ditu Tomas Azpirotz alkateak.

flash

• Dantza emanaldia uztailaren 31n
Plazaolako Partzuer-go Turistikoak eta Nafarroako Gobernuak Ortzadar euskal folklore taldearen dantza emanaldia antolatu dute. Uztailaren 31n, larunbata, gaueko 10,30etan izanen da, Amazabal pilotalekuan.

• Igeriketaren XII. jardunaldiak
Larunbat honetan, uztailak 31, goizeko 10etan, haur igeriketaren XII. jardunaldiak egingen dira Udal igerilekuetan. Bi froga izanen dira: 10 urte artekoentzat 25 metrocrowll edota bizkar estiloetan eta 11 urtetik 12 urte artekoentzat, 50 metro. Tanda libreare izanen da, nahi duten guzientzat.

• Plazaola aldizkariaren azalaren
txapelketa Berta Mihurak irabazi du. Festa bezperan jasoko du saria, alkatearen eskutik. Aurreko urtean ere berak aurkeztutako azala aukeratu zuten.

TTIPI-TTAPA da gure herrietan gehien zabaltzen den komunikabidea, eta gainera...

Moduloaren prezioa, bakoitzak duen hedapenaren arabera

TTIPI-TTAPA
• Modulo eta aleko: **0,23 Pta.**

DIARIO DE NAVARRA
• Astez **5,7 Pta.** / modulo eta aleko
• Igandea **4,6 Pta.** / modulo eta aleko

EL DIARIO VASCO
• Astez **5,3 Pta.** / modulo eta aleko
• Igandea **5 Pta.** / modulo eta aleko

GARA
• Astez **10,3 Pta.** / modulo eta aleko
• Igandea **7,6 Pta.** / modulo eta aleko

DIARIO DE NOTICIAS
• Astez **13,8 Pta.** / modulo eta aleko
• Igandea **11,6 Pta.** / modulo eta aleko

EGUNKARIA
• Astez **28,8 Pta.** / modulo eta aleko
• Igandea **24,7 Pta.** / modulo eta aleko

GOIZUETAKO UDALA
ARAU SUBSIDIARIOEN HASIERAKO ONESPEN...

LEITZAKO UDALA
LEITZAKO UDAL IGERILEKUEN USTIAPENA.
1999KO UDAKO DEBORBALDIA

ttipi-ttapa

7.100 harpidedun
24.000 irakurle

Ongi pasa herriko pestak!

BAZTAN

Herri guzietako orgak karrikaratu ziren aurtengo Baztandarren Biltzarrean

Erratzuarrek, baten faltan, bi atera zituzten

TTIPI-TTAPA

Eguraldi goibela eta tarteka egin zuen langarrarengatik ez balitz, aurtengoa sekulan izan den Baztandarren Biltzarra bestarik arrakastatsuen delat erran daiteke. Izan ere, 35 urteren ondotik, lehen aldiz Baztango hamabortz herrietako orgak karrikaratu ziren desfile ikusgarrian. Erratzukoek, gainera, baten faltan bi orga prestatu zituzten.

Orga guziak aski ederrak ziren eta aste aunitzako lana erakusten zuten. Hori kontuan hartuz, epaimahaiak sari banaketa berezia egin zuten. Lehendabizikoa saria Arraioz eta Elizondoren artean banatu zuten. Arraioztarrek Jauregiarrek irudia egin zu-

ten eta elizondarrek, berri, guardia zibil eta arrantzaleen arteko gorabeherak Putzu Beltz errekan. Bigarren sarian hamabortz herriak aipatu ziren eta hirugarren saria, berroetarrek irudikatutako Belateko lapurrek ereman zuten.

AMERIKANOEN ITZULERA

Herri ezberdinetako musika eta dantza taldeekin batera, aurtun Argentinako Rosario hiriko dantza taldeak parte hartu zuen desfilean. Gainera, *Nafarroara itzuli* kanpainaren banean Nafarroan dauden argentinarrak eta txiletarrak ere ongi etorria jasozuten Balleko Etxean. Desfilearekin batera, 1.600 lagun bildu zuten bazkaria eta bazkalondoa izan ziren aipagarri Elizondon.



Elizondoko orgak lehen saria erdietsi zuten Arraiozkoarekin batera: Putzu Beltzeko arrantzaleekin nahiko lan izan zuten guardia zibilek.



Baztango Dantzariak sarituak izan dira Galesen

Baztango Dantzariak hirugarren saria lortu dute Galeseko Llangollen herri burututako Eisteddford International Festivalean. Baztandarrek, Ingalaterra eta Irlandako ordezkarien gibeletik sailkatu ziren. Hamabi gizaseme eta zortzi emakume joan ziren eta uztailaren 7an aritu ziren dantzan. Mutilek Erratzuko sagardantza eta Muxikoa dantzatu zuten eta denek elgarrekin, Arratiako jota.

Argazkia: Mena

JATETXEA
 ☎ 948 580101
 Santiago 1
 ELIZONDO

Galarza >

**MENDI
 OSTATUA**

Santiago 25 - ☎ 948 580313
 ELIZONDO

BAZTAN

**ALTZARIAK
 zurgindegia**

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

**ARGIBEL
 OPTIKA**

☎ 948 581 391
 Santiago 62 - ELIZONDO

Aukera zabala

- Anteojoak
- Lentillak
- Audifonoak
- Errebisioak



Ziur gaztetxo hauek besta ederrak eginen dituztela.

Argazkia: Pello Barberenak utzia

Zigako San Lorenzo bestak abuztuaren 6tik 11ra

Egun haundiko meza ondotik Baztango dantzariak ariko dira

Ortzilerie, abuztuak 6
8etan txupinazoa. 10etan herri afaria. 12etatik 5etara dantzaldia BASAJAUN taldearekin. 5etan zinger jatea.

Larunbeta, abuztuak 7
Haurren Egune
12etan Gorritiren Show-a. 2etan haurren bazkaria. 2,30etan gazteen bazkaria Tellarin. 6etan Popi Zarretako pailazoak. Ondoren txokolate jatea.

Arratsaldez eta gauetz
dantzaldia DRINDOTS taldearekin.

Igandea, abuztuak 8
Jubilatuaren Eguna
10,30etan Meza Nagusia. 11,30etan mus txapelketa. 2etan jubilatuen bazkaria. 6etan herri kirolak. 8etan emakumeendako txokolatada. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia PYRAMID taldearekin.

Astlehena, abuztuak 9
San Lorenzo bezpera
12etan nesken arteko pilota partiduak. 4etan mutilen arteko pilota partiduak. 10etan herri afaria. 12etatik 5etara dantzaldia ZEUS taldearekin. 5etan zinger jatea.

Asteartea, abuztuak 10
San Lorenzo Egune
10,30etan Meza Nagusia. 11,30etan Baztango dantzariak. Ondotik hameke-

takoa. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia ZEUS taldearekin. 5etan zinger jatea.

Asteazkena, abuztuak 11
Zikiro Egune
12etan mutilen arteko pilota txapelketaren finala. 3etan zikiro-jatea. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia PYRAMID taldearekin. 5etan «Pobre de mi» eta zinger jatea.

flash

Udal batzordeak banatuak

Balleko Udaleko batzordeak banatu ziren uztailaren 20an egindako batzarrean. EAK bortsu batzorde zuzenduko ditu: Ekonomia (Migel Angel Adin), Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Herrigintza (Luis Arregi), Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendiak (Remigio Lizasoain), Kultura, Hezkuntza eta Euskara (Cristina Arregi) eta Kirola, Aisialdia eta Gaztedia (Rafael Olaizola). UPNk hiru batzorde zuzentzeko aukera du: Industria, Komertzio eta Turismoa; Herrilan, Garraio eta Komunikabideak; eta Gizarte Ongizatea, Osasuna eta Adinekoak. Haleren, UPN batzordeen banaketarekin ados ez dagoela adierazi zuen batzarrean. EHko Mikel Altzuartek, azkenik, Ekologia, Ingurugiroa eta hiri-hondakinen batzordea zuzenduko du. Gobernu Batzordean EAko Oartzabal, Adin eta Lizasoain, UPNko Jaen eta EHko Altzuart izanen dira.

Baztandarren Biltzarreko zozketak

Baztandarren Biltzarrean barnean hiru bidai zozketatu ziren. Lehendabizikoa, aste bat Tenerifen, 3.444 zenbakiari egokitu zitzaion. Bigarrena, asteburu bat Kantabrian, 5.299 zenbakiari eta hirugarrena, asteburu bat Landetan, 9.313 zenbakiari.



SOULE

Hileta artea

Tfnoak: 948 453444 • 608. 779903

ARIZKUN





BAZTAN FUNERARIA

EHORZKETA ZERBITZUAK

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA

TRASLADOAK

Menditurri, 1 • ELIZONDO • © 948 580373 • 608 776176

ttipi-ttapa

7.100 *harpidedun*

24.000 *irakurle*

Zure publizitatea

etxe xoko

guzietan

☎ 948 63 11 88

BAZTAN

Almandozko eliza berritua San Pedro egunean zabaldu zuten

Urtebetez lanean aritu ondotik

RAMON APEZETXEA

Herrikozaindariaren eguna zela aprobetxatuz, San Pedro egunean zabaldu zuten Almandozko eliza zaharberritua. Urte batez lanean aritu dira, teilatua berritzen eta barnealdean pintura ematen. Gainera, XVII eta XVIII. mendekobierretaulak ere moldatu dituzte, pipiaren kontrako tratamendua emanez, urre kolorea garbituz eta

irudien pintura berreskuratuz.

Inaugurazio egunean, Meza izan zuten eguerdian eta gero herri bazkaria. Bazkaltzen izan ziren aurten lehen jaunartzea egin duten hiru neska-mutikoak: Leire, Sara eta Iosu.

Bistan denez, herriak bere ondarea gordetzen saiatzen dira, gure arbasoek egin zuten bezala. Jendearen laguntzabertzezenbaitzuen bano aunitzez haun-

diagoa izaten segitzen du, eta, batzuetan, laguntza bakarra.

Gure herriek barnean daukatena hobetzen joan dira, eta honela, bizitza atseginagoa da. Gogoratu behar da Almandozek Espainiako Turismo Saria jaso zuela 1967. urtean, herria oso-osorik moldatzeko egindako lanarengatik: karririk, etxeak, berdeguneak... Geroztik moldaketa aunitz egin dira, errepede nagusia



**Kanpotik eta barnetik moldatzeaz gain, bi erre-
taulak zaharberritu dituzte Almandozko elizan.**

ez da herrigunetik pa- ra ederra du. Bizitasuna
satzen eta herriak itxu- deitzen zaio horri!

ZUGARRAMURDI

Errepidea moldatu eta zabaltzeko lanetan hasiak dira

Birundak zuzendu eta launa metroko bi karril eginen dira, 300 milioi pezetako aurrekontuarekin

MARGARI ETA KORO

Aspaldi huntan es- pero ziren karretera mol- datzeko lanak aitzineko astean hasi dituzte. 300 milioiko aurrekon- tuakin eta urte bateko epean 4 kilometroko errepede honetan birun- dabatzuk zuzenduko di- ra eta lau metroko bi kar- rirleko zabaltasuna ema- nen zaio. Honez gain, metro bateko bide baz- terrak ere izanen ditu.

Azpiroz eta Saralegi

enpresak hartuak ditu lanak eta langile aunitz aritu beharrak direnez, Odia etxea alokatua du- te, jantoki eta logelak erabiltzeko.

IV. Pilota txapelketa

Uztailaren 17an, la- runbatean, hasi zen he- rriko laugarren pilota txapelketa. Bi modali- tateko partiduak izanen dire (larru eta gomazko pilotekin) eta gizonez- ko eta emakumezkoen kategoriatan banatua da.

Interesa duenak, larun- bat arratsalde eta igan- de goizetan hurbil da- dila frontonera eta se- guraski partidu polita- ikusteko aukera izanen du (edo bertzenaz irri pittat eginen du baita ere). Finaleko partiduak bestetan eginen dire.

Gaupasan lanean aritutako en afaria

Ekaineko gaupasan herriko jendeak besta- rik egiten ez badu ere, ondotik antolatzen den



**Gaupasan lan egin ondotik afari batean
biltzen da herriko jendea.**

Artxibokoa

afarian ordaina biltzen dute. Gan den larunba- tean, uztailaren 17an, Armua jatetxean besta horretan lan egin zuten 125 lagun bildu ziren. Giro polita sortu zen, afalondotik betiko kan- tuak kantatuz eta ondo-

tik, digestioa egiteko, jende gehiena dantzat- zera animatu baitzen. Joxe Angel akordiolar- iari nahiko lan izan zuen, goizeko 6etan oraindik jendeak ez bai- tzuen erretiratzeko go- gorik.

Pleka trinketeko xoko txapelketaren borts finalak jokatu dira larunbat huntan

37. Kontrabandisten Lasterketa, berriz, agorrilaren 22an iraganen da

ANA MARI, MARTINE ETA FRED

Uztailaren 31n, larunbatarekin, Pleka trinketeko xoko txapelketaren finalak iraganen dire. Goizeko 9etan hasiko da lehenbiziko finala eta borts finalak segidan jokatuko dire, azken eguerdi inguruan izanez. Idazten dugun tenorean finalista guzien izenak ez ditugu ezagutzen. Hala ere, aipatzer ahal da: 3. mailan B taldean Mixel Anzizar arituko dela, Pello Etxebeste edo Iñaki Jauregi gaztearen aruka. A taldean ere hiru saratar ditugu erdi finaleraino, hala nola, Mattin Jorajuria, Jean Louis Oronoz eta Jean Mixel Pradere. 2. mailan, aldiz, bi ditugu: Sebastian Telletxea eta Mikael Vella, baita lehen mailan Ramuntxo Errandonea eta Oier



lazgo mailaz kanpoko finalistak: xuriz irabazlea, Panpi Laduche; gorri Patrik Ezkurra. Eskuinean ageri den harria Paterne jaunak oparitu du, hori eskuratu nahi duenak mailaz kanpoko txapelketa 3 aldiz irabazi behar du.

Hiriart. Mailaz kanpo ari diren pilotarietako partidu frango atzeratuak izanez, oraindik ezinezkoa da izenik aipatzea. Kirolaren ondotik pilotari guzietako bazkari on bat gozatzeko auke-

ra izanen dute, giro ona eta pario-desafio antizten artean.

Kontrabandisten Lasterketa agorrilaren 22an

Aurten XXXVII. las-

terkaldian, hemezortzi herriek parte hartuko dute, herri bakoitzetik bi lasterkari gonbidaturik izanez. 1961. an lehenbiziko aldiko antolatuta zen eta 1965 eta 1978. urteetan ezik ur-

tero egin da. 1988. urteaz geroztik Koxe Oronoz saratarraren eskutan da errekorra (40'26"). Agorrilaren 22an, arratsaldeko 5etan abiatuko da lasterketa eta egun osoan azoka izanen da.

Zikinen biltzeko saria apaldua

Zikinen biltzeko eta baliatzeko urte guzietan ordaintzen den saria apaldua izan da aurtengoa. Alabainan, herri arteko sindikatan, Sarako herriaren parte 821.175 Liberetatik 737.257 eta rat jautsi da. Ondorioz, Herriko Kontseiluak herriarrek 810 Libera pagatzeko partez 780 ordaintzea deliberatu du. Segi bezate bide bereetik, nihor ez da haserretuko!

Jendarmeak zaldiz Larrun eta lezeetan

Frantziako Jendarmeriak zaldiz ibiltzen den polizia bat finkatu du uda huntako Larrunen eta Sarako lezeetan ibiltzeko, Jendarmeriak, Larrungo Treinaren Zuzendaritzak eta Sara, Azkain eta Urruñako herriek izenpetu hitzarmen baten ondotik. Zaldiaren alokatzeko 36.000 Libera behar dira eta Sarari doakion zatia 9.000 liberetako da.

Bi teknikari lanean

Herriko Kontseiluak bi langile enplegatzea deliberatu du aurtengoa, teknika sailean aritzeko. Tote Leizagoien saratara eta Jean Marc Delpech Ainhoarra dira.

HERRIKO ETXEN EDANTEGIA

MAIAN ETA VÉRONIQUE
64310 SARA • Tel. 05 59 54 25 19

ttipi-ttapa internet

<http://www.lalaj.com/espagnas/ttipi-ttapa>
E-mail: ttipi-ttapa@espagnas.lalaj.com

Kutxa Kutxa Kutxa

Kutxa Kutxa Kutxa

Kidetzat berri bat!

7, Portuko Karrika-64700 Hendaia
Tel. 0559203274 Fax 0559203237

OLARI

Jatetxea

Tfnua: 948 45 22 54

IRURITA

* Jatetxea haize egokituarekin hornitua

SENPERE

Kantu Zahar ez ezagunaren eguna arrakastatsua suertatu zen


Bazkal ondotik zazpi orenez aritu ziren kantari Oxtikenean

FRANCK DOLOSOR

Kantu Zahar ez ezagunaren Eguna ezin hobeki pasatu dela erran daiteke, 70 bat senper-tarrek parte hartzen zutelarik. Bazkari ederraren ondotik, zazpi orenez, arratsaldeko 2 eta rik arratseko 9ak arte kantatuak izan dira lehengoeta, batzuetan, sekulan entzun ez diren kantuak. Denek zorian hartze dute, ahantzi gabe zerbitzariak eta Senpereko ofizialeak. Gehienek zioten «*heldu den urte arte*». Bitartean liburuxka bat eta dizka bat ateratzeko asmotan dira Oxtikenekoak elkarteoak. Katea ez dadin hautsi.

Uda eta udatiarrak heldu dira

Uda bete betean du-gu eta jendetza izigarri honek gure arazoak ez



Behi eta zaldi prima

Senpereko behi eta zaldi primakari, hemen biharko laborariak: ezkerreko argazkian, Mirentxu eta Ramuntxo Bereau. Eskuinekoan, berriz, Lopez anai-arrebak, sariak biltzen.

Argazkia: Studio de la Nivelle

lituzke gorde behar (Yplon lantegiaren hes-tea eta gure hizkuntza-ren beherakada).

Elgarrekin-ek egin bilkura idekia

Elgarrekin elkarte-

ren bilkuran zenbait kontu jakin ziren:

- Ezin dela etxerik edo eraikuntzarik egin errebidetik eta ur haunditik edo ur xuritik 75 metratarra (bi aldetara).
- POS delakoa (Plan

d'occupation des sols) aldatua izanen dela eta arrankurentzat Herriko Etxera hurbildu behar-kola dela.

- Seguruenik, diru eskasez, Luberriko presa ez dela eginen.

flash

- ❖ **Duela 200 urte**
1799ko uztailaren 14ean, Barrere deputatuaren eskutik, Frantses Iraultzak herri hizkuntzak, tartetan euskara, eskolatan debekatu zuen.
- ❖ **Solorzano andreak**
duela 10 urte, Jauregi Zaharra Senpereko herriari urrik eskaini zion.
- ❖ **4.331 bizilagun**
ditu Senperek azken kontaketa arabe-ra, duela hamar urte baino 868 bizilagun gehiago. Jendetza ainitz emendatu da Lapurdin, ttipitu al-diz Baxe Nafarroan eta Xuberoan.
- ❖ **Udako publizitatea**
Udakari ikus daiteke ainitz publizitate. Batzuek inglesa edo alemanatartean emana, baina hitz bat bere ere ez euskaraz.
- ❖ **Senpereko bestak**
aski ongi pasatu dira, Amotzekoak bezala, animale primekin eta guzi.

RESTAURANT MIGUEL

Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran
MIGUEL JATETXEA
Ibardingo Lepoa
© 948 631209 • BERA

ttiipi-ttapa internet
<http://www.jatetxea.com/ttapi-ttapa>
E-mail: ttapi-ttapa@jatetxea.com

ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • © 948 580 562 IRURITA

FUNERARIA ZERBITZUAK
Lesaka-Donztebe

MALDAERREKA, S.L.

24 orduko zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

EZKONTZAK

Miguel Maria Barriola Ezkurra eta **Maria Cristina Goñi Zelaieta**, Leitza eta Gartzaingoa, uztailaren 17an.
Francisco Javier Estanga Beraza eta **M^a Arrate Aierdi Barriola**, Betelu eta Leitzakoa, uztailaren 10ean.
Tomas Etxeberria Magirena eta **Isabelle Hiriart**, Amaiur eta Sarakoa, uztailaren 10ean Saran.
Garbiñe Saizar Telletxea eta **Marcos Aranalde Goienetxe**, Areso eta Berastegikoa, ekainaren 12an.

JAIOTZAK

Aitziber Irazoki Bengoetxea, Elizondokoa, ekainaren 30ean.
Mikel Lana Alberro, Doneztebekoa, uztailaren 5ean.
Iñaki Maylin Ezkurra, Doneztebekoa, uztailaren 15ean.
Maitane Sarratea Jabalera, Berakoa, uztailaren 2an.
Agustin Boucher de la Rupelle, Sarakoa, uztailaren 1ean.
Oier Barandarain Belaunzaran, Aresokoa, ekainaren 18an.

HERIOTZAK

Josefa Bidart Mendikoa, Azpilkue-takoa, uztailaren 11n, 89 urte.
Marcos Karrikaburu Bidegain, Arizkungoa, ekainaren 15ean, 50 urte.
Jose Roberto Apeztegia Gaskue, Elizondon, uztailaren 15ean, 79 urte.
Miguel Igarabide Iturburua, Erratzun, uztailaren 16an, 84 urte.
Christian Bernard Huchard, Baztanen, uztailaren 14an, 43 urte.
Dolores Larrea Huarte, Goizuetakoa, uztailaren 18an, 59 urte.
Pedro Irigoien Iraola, Berakoa, uztailaren 6an, 68 urte.
Pantxo Agirre, Sarakoa, uztailaren 14an, 69 urte.
Francisca Bergara Ariztegi, Arantzakoa, uztailaren 10ean, 81 urte.

ZORIONAK!

Oparia ematen
lehenak
izan nahi
dugu



Haurtxoa sortu eta etorri Iruñeko Kuxara berehala. Aldatzeko saskitxo hau, haurraren garbitasunerako produktuekin bete, emanen dizugu.

Ex aiantzi familiaren liburuxka!

IRUÑEKO KUTXA

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL
AGENTZIA

■ Zurich Aseguruak

• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak

■ Lan aholkularitza

• Nomina eta Aseguru Sozialak

■ Aholkularitza fiskala

• Errendaren Deklarazioak, IVA...

■ Inmobiliaria

• Baserri, borda, pisu, embarren salmenta eta alokairua

■ Gestoria

• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tfnoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO



Maderas
GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta reguesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugorak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ☎ 948 580 645

XATURETXEA



Tfnoa: 948637027 LESAKA

KOXKILA
OSTATUA



Zarandia, 4 - LESAKA

Laxoa txapelketaren finala igande honetan jokatuko da Arraiozen

- Doneztebe A taldeak txartela eskuratua du
- Bigarren finalista baztandarra izanen da, Irurita edo Arraioz

AITOR AROZENA

Igande honetan, abuztuak 1, eguerdiko 12etan jokatuko da Arraiozko plazan Baztan-Errekako hogeigarren laxoa txapelketaren finala.

Udaberriarekin batera hasi zen Laxoa elkarteak Bertizko Partzuergoaren laguntzarekin antolatutako txapelketa, hamar taldeekin. Lehendabiziko fasea jokatu ondotik, final laurdenetatik kanpo gelditu ziren Elizondo eta Oitz B taldeak. Final erdirako txartela errex lortu zuten Doneztebe A, Arraioz eta Irurita Ataldeek, Irurita B, Doneztebe C eta Irurita C kanporatuz. Lan gehiago egin behar izan zuen Doneztebeko B taldeak. Oitzko A taldeak 9-5 irabazi zion bere plazan eta doneztebarrek, lana gogotik eginda, 9-4 irabazi zuten etxean.

DONEZTEBARREN ETA BAZTANDARREN ARTEKO FINALERDIA ETA FINALA

Finalerdiak, doneztebarren eta baztandarren arteko derbiak izan dira. Doneztebe A taldeak azkeneko bortz txapelak irabazi ditu segidan eta aurten ere horretarako aukera izanen du: Javi Mariezkurrena, Peio Iribarren, Patxi Ganboa eta Luismi Apezteak osatu-

tako laukoteak finale-rako pausua emana du, herriko B taldeari bi partiduak irabazi ondotik (lehendabizikoan 9-2 eta bigarrean, 9-6). Honela, hasierako fasean zenbait partidu galdu bazituen ere -Arraiozen kontra jokatutako biak-, azken aldera Doneztebeko talde nagusiak sasoi puntu egokia hartu duela ematen du eta, beti bezala, faborito nagusia izanen da.

Bertze finalerdian Irurita A eta Arraioz aritu dira aurrez aurre. Faboritoak arraioztarrak ziren (Saldias, Mortalena, Karrikaburu eta Gamio), iazko finalista izateaz gain, aurten beraien herrian izanen baita finala. Gainera, hasierako fasean ez zuten partidu bakar bat ere galdu. Halere, lehendabiziko saioan ezustea eman zuen Irurita A taldeak (Jorge Azkara te, Urrutia,

Elizaintzin eta Etxandi), 9-8 irabaziz. Bigarren saioa asteburu honetan jokatu da Arraiozen eta herrikoak irabaztera derriortuak zeuden, finalean aritu nahi bazuten.

Txapelketa nagusia akitu bezain laster, Baz-

tan-Errekako Gazte txapelketa jokatuko da. Baina horretaz aparte, Malerreka, Baztan eta bertze hainbat lekutan emanaldiak eskainiko dira.


AKITZEKO, PAXAKA TXAPELKETA

Denboraldia, halere, negura arte luzatuko da, joan den urteko arazo teknikoak gainditu ondoren, Laxoa Elkarteak Paxaka txapelketa burutzeko asmoa baitu zonaldeko frontoietan. Galdurik dagoen modalitate zahar hau berreskuratzea eta, aldi berean, larruzko tresnaren erabilera ikasi eta hobetzea izanen da helburu nagusia. ■



Laxoa txapelketak hogeit hamar urte, paxakak zenbat eginen ditu?

Aurtengoan hogeigarren edizioa bete du, Laxoa elkarteak Bertizko Partzuergoaren laguntzarekin antolatutako txapelketa honek. Beraz, joan den urtean Irurita taldearen mendeurrena ospatu bazen, aurten ere izan da ospakizunerako aitzakirik. Gogoratu behar da 70. hamarkadaren akabailan laxoa ez zela kasik ikusten gure herrietan, bestetako partiduren batean ez bazen. Orduan sortu zen Laxoa Elkartea eta orduan jokatu zen lehendabiziko txapelketa, pilotaren modalitate zaharrena biziberitu asmoz. Hogeit hamar urte beranduago, laxoak bizirik segitzen du eta ez da gutti. Orain inon gutti jokatzen den paxakarekin bertze horrenbertze egin nahi du Laxoa elkarteak. Ea hemendik hogeit hamar urte paxakak ere laxoa bezain osasuntsu ikusten dugun.



Argazkia: Goiko

Gasherbrum-II Bortzirietako espedizioko kideek ongietorri beroa jaso zuten Beran

- 8.035 metroko gailurra bigarren saiakeran lortu zuten bortz lagunetatik hiruk
- Esperientzia gogorra izan den arren, hagitz polita ere izan dela diote

A.A.

«*Esperientzia ederra izan da, gogorra bai, baina zoragarria. Possible dugunean bertze zortzi milako bat egiten saiatuko gara*». Horrela mintzo ziren ekaina eta uztailaren Pakistango Gasherbrum-II mendian ibili den Savera Group espedizioko kideak. Berako Iñaki Zubietak, Sabino Korta eta Luis Mari eta Patxi Pikabea anaiak eta Arantxako Ana Larretxea pozik ageri ziren uztailaren 21ean etxera bueltatu zirenean eta bazuten horretarako arrazoi frango: alde batetik, 8.035 metroko mendia gailurra zanpatzea lortu zuten hiru espediziokide uztailaren 9an, Sabino Korta, Luis Mari Pikabea eta Xabier Zubietak, hain zuzen. Ana Larretxea eta Patxi Pikabeak, osasun arazoak medio, ez ziren gailurrera igaiten saiatu. Bertzalde, bortzak kilo batzuk galdu dituzten arren, osasunez ongi itzuli dira. Azkenik, ongi merezitako omenaldia jasodute, bai Sondikako aireportura ailegatu zirenean, baita Agerra mendi taldean ere.

BIGARREN SAIAKERAN LORTU ZUTEN GAILURRA

Bortz gazteak ekainaren 1ean abiatu ziren Karakorum mendikatera eta hilaren 7an ailegatu ziren oinarritzko kanpamendura, 4.950 metro tara. Bertan bi aste eman zuten, altuera



ra egokitzen eta zenbait osasun arazo arunt eta arin izan zituzten. Lehenbiziko kanpamendua 5.800 metro tan jarri ondotik, ekaitzen ondorioz, astebetez geldirik egon behar izan zuten oinarritzko kanpamenduan.

Uztailaren 3an egin zuten gailurra zanpatzeko saiakera, baina, ekaitzaren ondorioz ezin izan zuten helburua bete. Honela solastu zuen Luis mari Pikabeak, ТТIPI-TTAPAREkin egindako konexioan: «*Zuzpi mila metro tara igo eta kanpamendua jarri genuen, baina haizea eta elurra sartu zen eta beheiti joan behar izan dugu, ez zen deus egiterik*».

Astebete berandua go, uztailaren 9an, egin zuten bigarren saiake-



Bortz espedizio kideak Gasherbrum mendia magalean eta uztailaren 21ean, Agerra Mendi taldeak eskaini zuten omenaldian.

Argazkia: Goiko

ra. Erran bezala, ahul xamar zeuden Ana eta Patxiez zirensaiatuere, baina Sabino, Xabier eta Luis Marirekin batera,

bertze espedizioetako sei lagun igo ziren. Hamahiru ordu behar izan zuten goitzeko eta sei jausteko. Denek gailurra

egitea lortu ez zuten arren, pozez gainezka eta onik itzuli dira Saver Group espedizioko kideak. Zorionak!

AGENDA EGUNEZ EGUN

BESTAK

BERA

► **Abuztuaren 2tik**
7ra Gehigarri berezia.

LEITZA

► **Abuztuaren 10etik**
15era Gehigarri berezia.

SUNBILLA

► **Abuztuaren 10etik**
14ra Xehetasunak 18. orrialdean.

BEINTZA-LABAIEN

► **Abuztuaren 2tik**
6ra Xehetasunak 19. orrialdean.

GAZTELU

► **Abuztuaren 2tik**
6ra Xehetasunak 19. orrialdean.

KONTZERTUAK

ETXALAR

► **Uztailaren 30ean**
Balerdi-Balerdi. Herriko ostatuan, arratseko 22etan.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

► **Abuztuaren 31 bi-tarte** Tomas Sobrino margolariaren lanak ikusgai Jaime Urrutia karrikako 23. zenbakian.

GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tfnora, deitu behar da

► **Uztailaren 26tik abuztuaren 1era** Etxalar, Narbarte, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

► **Abuztuaren 2tik 8ra** Igantzi, Doneztebe, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

► **Abuztuaren 9tik 15era** Lesaka, Sunbilla, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

AGENDA PRAKTIKOA

TELEBISTAKO TXOKOA

ttiipi-ttapa telebista

t	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	ORTZEGUNA	ORTZIRA A
11:00	Herriz-herrri (erep.)	Berriak (erep.) Jokoa Solas	Berriak (erep.)	Berriak (erep.) Bidegurutzean	Berriak (erep.)
13:00	Herriz-herrri (erep.)	Berriak (erep.) Jokoa Solas	Berriak (erep.)	Berriak (erep.) Bidegurutzean	Berriak (erep.)
17:00	Herriz-herrri (erep.)	Berriak (erep.) Jokoa Solas	Berriak (erep.)	Berriak (erep.) Bidegurutzean	Berriak (erep.)
21:00	Berriak	Berriak	Berriak	Berriak	Herriz-herrri
21:30	Jokoa Solas	Jokoa Solas	Bidegurutzean	Bidegurutzean	Herriz-herrri



ORTZIL-ERO: Ortziraletako programa eroa

Azken alean aipatu genizuen TTIPI-TTAPA TELEBISTAK zenbait aldaketa eginen zituela bere programazioan. Ikuslerik finenak ohartu izanen zarete ortziraletako Herriz-herriren ordez Jon Abrilek zuzentzen duen ORTZIL-ERO programa emititzen hasiak garela. Musika, uda giroko erreportai frexkoak eta bertze kontu bitxiak izanen dira saioaren ardatz.

Bertetik, erran behar dugu herrietako bestetako bideoak salgai daudela (Donezteben eta Lesakan) ohiko lekuetan. Oporrei dagokienez, guk abuztuaren 20an hartuko ditugu, eta irailaren 20an berriz ere izanen gara zuekin.

Liburuak



«Esku bakarrarekin irakurtzeko kontuak»

Pilar CRISTOBAL

Txalaparta

Pilar Cristobalek, luma jostariz eta naturaltasun harrigarritz, hamahiru narrazio aletzen dizkigu, zein baino zein bustiagooa eta goriagooa. Irakurlea eskutik hartu eta leihatilatxo batera darara, bere voyeurtasunaz atsegin har dezan: jaun-andereen eta bere mirabearen arteko harremanak, familia baten larrualdi xelebreeak, zakila alotaku duen bikote lesbianoaren kausa, leihotik mutil gimnasiaza-



ZERRIKIA

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 2.400 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 150 pta./kiloa.
- **Zerramak**: 75 pta./kiloa, bizirik.



BEHIKIA

- **Aretze gizenak**
- **Idixkoak**: Pta./kg. Kanal
- Extra 540
- 1.koa 510
- 2.koa 480
- **Urruxak**: Pta./kg. Kanal
- Extra 540
- 1.koa 520
- 2.koa 500
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.
- **Aretze ttikiak** (15 egun ingurukoak):
- Nabarrak**: urruxak 15.000 eta idixkoak 28.000 Pta.
- Mestizoak**: urruxak 28.000 eta idixkoak 38.000 Pta.
- Behi zaharrak**: Behi nabar gizona: 350 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 390 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE-NAFARROA

JAKIN BEHARREKOAK


Buruko mina

Mendebaldeko gizartean sintoma neurologikorik ohikoena da buruko mina. Batzuek maizago eta bertzeek bakanago, baina jendearen %80ak sufritzen du tarteka, eta %15ak bakarrik ez du behinere buruko minik izan. Emakumeak dira gehienbat buruko mina izaten dutenak. Adinari dagokionez, berriz, 30 urtetik beheitikoetan agertzen da batez ere. Adituek diotenez nerabezaroan somatzen dira lehendabiziko buruko minak, hilerokoarekin batera nesken kasuan, eta menopausiarekin desagertzen omen dira betiko. Gizonetan, berriz, 45-50 urtetan.

Erran bezala, hilerokoa izaten ahal da buruko minen eragilea, baina badira bertze hamaika arrazoi ere: estresa, gehiegizko ariketa fisikoa, lo sobera edo guttiegi egitea, eguzki gehiegi hartzea, antisorgailuen erabilera, tabako sobera erre edo alkohola edatea... Gainera, txokolata, arraultzak, fruta garratzak edo intxaurrek jatea ere ez da batere ona.

ZEIN DA TRATAMENDU EGOKIA?

Buruko minak noizean behin bakarrik suertatzen di-



Emakumeak dira, 3tik 2tan, buruko minak sufritzen dituztenak.

renean, hoberena da gela ilun eta ixil batean atseden hartuz aurre egitea. Loak hartzea lortzen baldin bada seguraski nahikoa izanen da buruko minari adio errateko. Mina hagitza haundia baldin bada, ordea, medikazioren bat har-

Hoberena gela ilun eta ixil batean atseden hartuz aurre egitea da.

tzea gomendatzen dute adituek. Aldiberean analgesiko bat baino gehiago hartzea saihestu behar da. Ohikoena aspirina izaten da, baina badira bertze batzuk: parasetamola, naproxenoa, ibuprofenoa... Buruko minak maiz sufritzen dituzten pertsonen tratamendu prebentibo bat segitzea gomendatzen zaie.

Hala ere, buruko minaren kontrako tratamenduak ez ditu beti nahi diren emaitzak ematen, eta horrek gaixoenengan desesperazioa sortarazten du auniztan.

DISKAK



«Bazen garaia»

KONTRAIRO

I.Z.

Bi urte pasa dira lehen diskoa grabatu zutenetik, eta denbora luzea joan denez bi lanen artean, «Bazen garaia» izenburua jarri diote. Horixe erraten omen zien jende guziak diskoa grabatzen ari zirela jakiten zutenean.

Instrumentu saltsa haundia erabili dute estudioan: alboka, trikitixa, gaita eta txirulak alde batetik, kongak bertzetik, eta baita gitarra, baxua eta bate-

ria ere. Folk eta rockaren arteko nahasketa lortu dute horrela, baina zenbait abestitan saltsa ukituak ere nabari zaizkie.

Zenbait kolaboratzaile izan dute euren ondoan, Niko Etxart bakarlaria, bertzeak bertze. Musika dendetan 2.500 pezetan eros dezakezu Kontrairoren azken diska, edo bertzenaz Argia aldizkariaren bidez 500 pezeta merkeago.

AGENDA EGUNEZ EGUN

MINTZALDIAK

ELIZONDO

► **Abuztuaren 6an** Elizondoko Arizkunenea kultur etxean, Pepe Rei. Arratseko 8,30etan.

DANTZAK

LEITZA

► **Uztailaren 31an** Gaueko-dantza, arratseko 10,30etan, pilotalekuan.

JAIALDIAK

SARA

► **Abuztuaren 7an** Errugbi elkartearen festa. Egunduan dantza, pilota partidak, musika... bazkaria eta afaria egiteko aukera.

SARA

► **Abuztuaren 21ean** Pilota elkartearen festa. Egunduan dantza, pilota partidak, musika... bazkaria eta afaria egiteko aukera.

LASTERKETAK

SARA

► **Abuztuaren 22an** Kontrabandisten lasterketa eta egunduan artisau eta sukaldaritzaren feria.

CULTUR 99

ELIZONDO

► **Uztailaren 31n** Merkatu Plazan arratsaldeko 5,30etan, Gure Artisan Kuttunak erakusketa.

BERTIZ

► **Uztailaren 31n** Sarasate laukotearen musika emanaldia, eguerdiko 12,30etan eta arratsaldeko 6etan.

URDAZUBI

► **Abuztuaren 1ean** Euskal Dantzarien Biltzarra.

URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratzeo, bidali sobrea zure helbidearekin.

OHARRA:
Argazki bakoitzarekin batera 35 Ptako 15 seilu igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira argitaratuko. Argazkia itzultzea nahi baduzue sobre bat eta helbidea bidali.



Ane Latasa Berasategi 2 urte bete ditu uztailaren 21ean. Zorionak maitea! Familiaren partetik.



Asier Saenz De Urturi Ubi-ria irundarrak uztailaren 17an bete-ko ditu 14 urte. Aunitz urtez Jon eta familia guziaren partetik.



Ainhoa Ubiria Sarasolak 9 urte bete ditu uztailaren 25ean. Aunitz urtez Jon eta familia guziaren partetik.



Elixabete Isasa Iturria irundarrak uztailaren 23an 10 urte bete ditu. Zorionak Berako familiaren partetik.



Amaia Iturria Gallego donostiarrak uztailaren 6an 11 urte bete ditu. Zorionak Berako familiaren partetik.



Ixone Telletxea Uranga beratarrek 9 urte bete ditu uztailaren 21ean. Zorionak familiaren partetik.



Eloy Garcia doneztebarrak uztailaren 18an bete du urtea. Zorionak bere guraso, anaia Daniel eta Eratsungo familiaren partetik. Musu bat.



Andrea Escagües Martiarena beratarrek uztailaren 20an 3 urte bete ditu. Zorionak eta muxu bat Aitor eta Jaberren partetik.



Jon Ander Zapiain beratarrek 7 urte beteko ditu abuztuaren 10ean. Zorionak atxa eta amaren partetik. Aupa txirindulari!



Mari lesakarrak uztailaren 20an bete ditu 32 urte. Zorionak Alex, Ander eta Befaten partetik.



Asier lesakarrak uztailaren 30ean 2 urte beteko ditu. Zorionak zure familiaren partetik.



Alazne lesakarrak uztailaren 30ean bete-ko ditu 3 urte. Zorionak zure familiaren partetik.



Susana beratarrek uztailaren 20-an urteak bete ditu. Zorionak zure familiaren eta batez ere zure senargaiaren partetik. Muxu handi dut.



Edurne Sarraitea eta Arrate Aierdi leiztarrek ekainaren 12 eta uztailaren 10ean ezkon-eguna ospatu zuten. Zorionak bikote. Zuen koadrila.



Ainhoa Goñi Petrirena beratarrek 22 urte bete-ko ditu uztailaren 29an. Zorionak Joanes eta Nahieren partetik.



Maddi eta Irantzu Mikelarena Erdozain beratarrek uztailaren 20an 3 urte bete dituzte. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.



Olaia Matxikote Sein igantziarrak uztailaren 21ean bete ditu 7 urte. Aunitzurtez Xabat, atxa, ama eta amaxiren partetik.



Imanol Mayoromo Irigoien beratarrek urtea bete du uztailaren 25ean. Zorionak eta muxu bat bere lehengusua Xabierren partetik.



Izaskun Zubieta Albistur beratarrek 11 urte bete ditu uztailaren 23an. Zorionak aita, ama eta Mikelen partetik.



Izaskun Zubieta Albistur beratarrek 11 urte bete ditu uztailaren 23an. Zorionak Rikardo Barojako koadrilaren partetik.



Olaia Zabaleta Lasarte leiztarrek urteak bete-ko ditu uztailaren 24an. Zorionak amona eta amaxiren partetik.



Eguzki Irigoien Juanena donamariarrak 10 urte bete-ko ditu abuztuaren 9an. Zorionak eta muxu handi bat guraso eta familiaren partetik.



Mikel Alzuri Makuso aurtiztarrek 2 urte bete-ko ditu abuztuaren 6an. Zorionak familiaren partetik, bereziki losu eta Olaiaren partetik.



Enara Irurieta Pikabea beratarrek 9 urte bete-ko ditu abuztuaren 20an. Zorionak familiaren partetik.



Idolia (Igantzi) Aunitz urtez Hexalite! Etzane-la besta haundigirik in afari ondotik, berzela Supermanen pare yu- nien yatz ta berriz. Amak prestaturako afari ezin baliyo!



Oihane eta Josu Perurena Zabaleta leiztarrek abuztuaren 22an eta 11n urteak bete-ko dituzte. Zorionak aita eta amaren partetik.



Aitana Mañeru lesakarrak uztailaren 29an 10 urte bete-ko ditu. Zorionak Irati, Angel eta Kontxiren partetik.



Amalur Maritorea berroetarrek lau bete-ko ditu uztailaren 25ean. Zorionak eta lau muxu handi Ekaitz, aita eta amaren partetik.



Tania Indakotxea arantzarrak abuztuaren 6an bete-ko ditu urteak. Ongi ospatu Arantzako bestetan. Txintxo ibili. Zure lagun bat.



Steven Leiper Ocariz lesakarrak uztailaren 28an 9 urte bete ditu. Zorionak zure familia eta Maidarren partetik.



Aitziber Iturria beratarrek uztailaren 30ean bete-ko ditu urteak. Aunitz urtez etxekoan partetik.



Pantxika Telleria eta Ur Apalategi joan den uztailaren 24an ezkondu ziren txobx eginez. Arrats hortako zirimolaren ondotik horrelako aurpegia gelditu zitzaizen. Zorionak eta aunitz urtez. Segi jo ta ke dantzan eta idazten!



Argi Agara Salaberri beratarrek 12 urte bete-ko ditu abuztuaren 10ean. Besarkada handi bat Maddi eta Arantxaren partetik.



Maddi Sese Agara beratarrek 7 urte bete-ko ditu abuztuaren 10ean. Muxu handi bat atxa, ama eta Arantxaren partetik.



Sunbillako Maitane Ibarri zorionak uztailaren 26an 14 urte bete dituelako. Zerbaitea gonbidatuko gaituzula espero dugu. Zure koadrila.



Klaudio donamariarrak uztailaren 30ean urteak bete-ko ditu. Zorionak Edurne, Unai eta Naroaren partetik. Lasaitasunez hartu!



Unai Iparagirre Oskoz beratarrek 8 urte bete-ko ditu abuztuaren 25ean. Zorionak eta muxu bat familia guziaren partetik.



Maria Torres Ustariz elbete-arrak abuztuaren 18an 17 urte bete-ko ditu. Zorionak! Ama, ahizpa, anaia eta iloba Julen eta Mikelen partetik.



Julen Iturralde elbete-arrak 4 urte bete-ko ditu uztailaren 20an. Zorionak! Amaboi eta izeben partetik. Aupa potxolo!



Maialen Irigoien Etxabideri zorionak uztailaren 22an bere eguna delako. Ongi pasa dezala, familia guziaren partetik.



Jose Antonio eta Anttonik uztailaren 24an 28 urte bete dituzte ezkondu. Zorionak familiaren partetik.




TTIPI-TTAPAKO BERRIEMAILEN OHARRA:
eskertuko genuke guri eman beharrean zoriontzeko argazkiak TTIPI-TTAPAra postaz igorriko bazenituzte. Horretarako, sobre batean 35 pezetako 15 seilu sartu eta argazkia eta testuarekin batera bidali honako helbidera:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA - Urtebetetzeak saila
Herriko Etxeko plaza, 1
31780 Bera



Berako Udalak besta onak
opa dizkizue beratar eta
bisitari guziei



*Denon artean
denona dena
Gora
Leitzeko
pestak*

JUSTIZIA,
ASKATASUNA
ETA PAKEA
LEITZARI ETA
EUSKAL HERRIARI



**Besta
Zoriontsuak !!**

GANI NAFARROAKO AURREZKI KUTXA